

Noqua!!

H A M A B O S K A R I A

2000ko ekainaren 30a V. urtea

Usurbil, 93. zenbakia

Ai Ixabel, Ixabel,
Ixabel guria...

*Besarkada haundi bat aurtengo
festetan ere behartuta herritik
kanpora zaudeten guztioi
Gora Santixabel!*



Euskal Presoak



Etxera!



USURBIL

Txerrimunik ordainetan



Txokoalden bada 88 urte bete dituen amona kuttun bat, edozeinek esango luke duen indarra ikusita! Zorionak amona, eta muxu haundi bat familiakoen partez.



Uztailaren 1ean beteko dituzu 13 urte. Zorionak **Mikel!** Herriko festak direnez danbor hotsarekin batera ospatzea merezi du egun honek. Ondo pasa eta muxu haundi bat etxekoan partez.



Ekainaren 28an urtea beteko duzunez zorionak **Aitor Lerxundi** eta muxu haundi bat zure gurasoen partez.



Zorionak **Dolox** ekainaren 15ean izan zen zure urtebetetze egunagatik. Ondo pasako zenuenaren esperoan, ea igandearen ospatzen dugun bazkaritxo eder batekin! Etxekoan partez.



Aupa bikote! Uztailaren 3an eta 13an zuen eguna ospatzen ikusi nahi zaituztegu, eta juerga eder bat egin nahi baduzue gu bezalako parrander@hobeagorik ez dago inguruan. Zorionak **Jaione eta Aloña!**



Zorionak **Naiara Perales!** Gure etxeko sorginak 10 urte beteko ditu datorren uztailaren 16an. Urte askoan eta muxu haundi bat familiakoen partez.

Hona hemen edonor zoriontzeko tarteak. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarki jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: uztailaren 14an
Ekartzeko azken eguna: uztailaren 7a

Jaiotzak

Unai Sañudo
Guisado
(2000-06-7)
Muna Lurra

Hildakoak



2000-6-20
Joxe Pablo Olasagasti
Bengoetxea
78 urte
Aginaga

EUSKO TRENBIDEAKEN UDABERRIKO AUTOBUS ORDUTEGIA

ASTEGUNETAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.40	08.05	08.25	06.45	07.05	07.30
08.00	08.25	08.35**	07.15	07.35	08.00
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30
09.00	09.30	09.40*	08.15	08.35	09.00
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30
10.40	11.05	11.25	09.20**	09.30	10.00
11.40	12.05	12.25	09.45	10.05	10.30
12.00	12.25	12.35**	10.20*	10.30	11.00
12.40	13.05	13.25	10.45	11.05	11.30
13.00	13.30	13.40*	11.45	12.05	12.30
13.40	14.05	14.25	12.45	13.05	13.30
14.00	14.30	14.40**	13.20**	13.30	13.55
14.40	15.05	15.25	13.45	14.05	14.30
15.00	15.25	15.40*	14.20*	14.30	15.00
15.40	16.05	16.25	14.45	15.05	15.30
16.40	17.05	17.25	15.20**	15.30	15.55
17.40	18.05	18.25	15.45	16.05	16.30
18.00	18.30	18.40*	16.20**	16.30	17.00
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30
19.00	19.25	19.35**	17.45	18.05	18.30
19.40	20.05	20.25	18.45	19.05	19.30
20.00	20.30	20.40*	19.20*	19.30	20.00
21.00	21.25	21.45	19.45	20.05	20.30
22.00	22.30	22.50	21.15	21.35	22.00

* Orioraino ** Aiaraino * Oriotik ** Aiatik

ASTEBURUTAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.45	17.05	17.30
18.30	18.55	19.15	17.45	18.05	18.30
19.30	19.55	20.15	18.45	19.05	19.30
20.30	20.55	20.15	19.45	20.05	20.30
21.30	21.55	21.15	20.45	21.05	21.30
22.30	22.55	23.15	21.45	22.05	22.30

AZPIROZ

Harri Lanak

BERTAKO FABRIKAZIOA
(bitartekorik gabeko salmenta)

Bazkardo auzoa. INCARGI habeartea (2 zk). Tfnoa.: 943 59 22 09

USURBILEN AZPIROZEN ZERBITZUA

mur ERROTULAZIOAK - Nagusia, 10

HARRI LANAK OROKORREAN

- Hilarriak, panteoiak eta hileta apainketak
- Sukalde eta bainuen gainekoak
- Baserri eta edozein etxetarako errotuloak
- Oroitzapenezko plakak
- ...

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
http://www.topagunea.com/noaua/

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalaoa Arnau, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karnele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Manuel Begiristain, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieto, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Arantxa Usarraldé, Aitor Pikabea, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-kaitz Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Olatz Goenaga.

Dokumentazioa

Idola Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez.

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! harnabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Azala:

Iazko Santixabelak. Soka dantza herriko pelotarien eskutik.

Zer irizten?



Selektibitatea: Zertarako hainbeste buruko min?

Lur Etxeberria Gurrutxaga

Hamaika buruko min eta urduritasun pasatako asko izango da Usurbilen bertan, selektibitate kontua dela medio, eta niri gaurko honetan honi buruz pixka bat "lardaxkan" aritzea egokitu zait.

Jendeari lehenagotik entzuna nion zer nolako esperientzia zen selektibitatea egitea eta, honegatik, bizitzan askorentzat garrantzi handia duen azterketa honen bezperako egunak batera xamurrak izango ez zirela espero nuen. Baita asmatu ere!

Izan ere, nor has daiteke "egun handia" baino hiru aste lehenago Historia ikasten? Eta fisika? keba, keba... Azkeneko uztea askoz hobea izaten omen da, bestela, agian, ahaztu egingo zait *Isabel I-aren erregealdia* nondik norakoa den edo *Kepler-en formulak* ez ditut behar bezala gogoratuko eta... gero kexuka arituko naiz, guztia behar bezala ikasteko denborarik ez dudalako eta honek dakartzan urdurtasunak, lo hartu ezinak... jasan behar izango ditudalako.

Hala ere, eta hau alde batera utzita, hemezortzi urte inguruko gazte askoren ahotan dabilen galderari eustea erabaki dut: **Selektibitatea zertarako?**

Bai, egia da selektibitatearekin normalean Batxilergoan lortutako nota jaitxi egiten dela eta, honek ematen duen amorrua dela eta, guztiok pentsatu dugu noiz edo noiz ea zergatik

ez duten betirako kentzen ditxosozko selektibitatea. Hala ere, ez dut uste unibertsitatara sartzeko Batxilergo nota bakarrik nahikoa denik. Izan ere, guztiok dakigu unibertsitatara sartzeko plazak mugatuak direla eta ezinezkoa dela plazak guztiontzat irekiak izatea. Hala balitz, nork izango luke unibertsitatara sartzeko lehentasuna?

Ez dugu ahaztu behar (eta ez da nik asmatutako zerbait), Batxilergoan, eskola pribatuetan publikoetan baino nota hobek izaten direla orokorrean, eta hor ikasleen azkartasuna ez den beste zerbait ere tartean dagoela esan ohi da. Horregatik egoki deritzot ikas-tetxe guztietako ikasleek, izan pribatuetakoak edo publikoetakoak, unibertsitatara sartzeko egoera berdin baten aurrean jartzea. Hor ikusiko baita ikasle bakoitzaren benetako abilezia.

Honekin ez dut esan nahi horretarako selektibitatea baino metodo hoberik izango ez denik, baina besterik bururatzan al zaizue?

Gainera, ez dezagun ahaztu aurten, aurreko urteetan ez bezala, selektibitatea azken notaren % 40a dela eta Batxilergoko batzbesteko nota, berriz, % 60a.

Hala ere, honek abantailak baino desabantailak ekarriko dituenaren beldur naiz. Izan ere, ez baita harrizkoa izango honekin unibertsitatara sartzeko beharrezko nota igotzea. Hortxe "koxkaren koxka".



Usurbilgo Udalak



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Rakel Ullate Izagirre

Lehengo festak askoz hobeak ziren eta jendearen partehartzea bultzatu beharko litzateke. Hauxe da usurbildar honek esan diguna. Santixabelen inguruan egon gara berarekin kontu-kontari.



Nola gogoratzen dituzu ume garaiko Santixabelak?

Egia esan ez ditut gogoratzen zeren Txokoalden bizi nintzen, eta agian gurasoekin etorriko nintzen umeen egunean edo, baina ez naiz gogoratzen. Gero hamalau urterekin eta, lagun baten etxera etortzen nintzen lotara, baina Txokoaldekoa izateak mugatu egiten ninduen.

Eta gazte garaikoak?

Askoz hobeak ziren.

Zer dela eta?

Gazteagoak ginen eta orain ez ditut festak lehen bezala disfrutatzen, orain lana egin behar dut eta lanez kanpo zerbait bizitzen ditut, baina lehen egun guztian zehar ateratzen ginen... Nik uste dut denok gehiago ibiltzen ginela antolatzen, eta giro gehiago sortzen zela, eta orain ez da horrela. Plazara joaten zara adibidez eta ez da inor egoten dantzan. Jende guztia tabernetan egoten da.

Festak poteatzeko egunak bihurtu al dira orduan?

Baietz uste dut nik. Neretzako dena aldatu da, jendea tabernetan ibiltzen da, eta lau tragorekin daudenean dantza egitera ateratzen dira, baina taberna inguruetan gehiago ibiltzen da jendea.

Antolatzen diren gazetan ere desberdintasunik ba al dago?

Nik uste dut alde horretatik antzekoa izango dela, baina oilaskobiltzaileen egunean, adibidez, askoz ere jende gehiago ateratzen zen. Orain jende gutxi ateratzen da eta askotan mozortu egiten dira. Behin, mozortu eta beraiek

antolatzen dituzten jokuak ere ez ziren egon. Nahiz eta gauzak antolatuta egon "desmadre" gehiago egoten da, eta askotan ez dira bukatzen gauza horiek.

Herriko jende guztiari zuzendutako gauzak antolatzen direla iruditzen al zaizu?

Teorikoki bai. Nik uste dut dena ikutzen dela, zentzu horretan gauzak ez direla aldatu.

Zerbait aldatuko al zenuke? Egunen bat gehituko al zenieke festei?

Ez. Ikuspuntu desberdinak dira. Egunero jai baldin badaukazu, geroz eta egun gehiago hobe eta lehen horrela ikusten genuen, baina lanean ibili behar baduzu, gauzak aldatu egiten dira. Lau egunekin nahikoa da, lan asko egin behar izaten dugu ostalaritzan ibiltzen garenek eta eguraldi ona egiten badu, gehiago oraindik.

Eta zerbait kendu?

Ez. Kontua ez da gauzak kentzea, giro gehiago sortzea baizik. Jendea gehiago motibatu beharko litzateke, baina hori norberaren esku dago. Jendea ez da gehiegi mugitzen, eta hori aldatu egin behar da.

Aurten sokamuturra egingo da berriz. Zer iruditzen zaizu? Polita al da hori berreskuratzea?

Hori gauza polita izaten zen eta gaupasan dagoen jendearentzako primerakoa da.

Parranda egiteko gogorik ba al duzu? Eta denborarik?

Gogoia beti izaten da eta denbora atera egin beharko dut. Bueltatxo bat behintzat eman beharko dugu.

AGIRREZABAL
estankoa

Jai zoriontsuak
usurbildar guztioi!

Kale nagusia, 27
Telefona: 36 11 10

MAHUKA



GAZTE DENDA

*Zorionak eta ondo
para herriko festetan!*

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06

Eguneko bazkariak
ETXEBESTE
JATETXEA

Ondo ibili
USURBILGO FESTETAN!

Aginaga ☎ 943 36 27 40

TXOKOALDE

Santueneatik Txokoaldera

Iñaki Labaka



Goizero lanerako bidean (zazpi eta erdiak inguruan) zeharo harrিতuta gelditzen naiz ikusten dudanarekin. Neronek ohetik jaikitzeo nahikoa lan izaten dut gehiengutan, gustora denbora gehiago pasatuko nuke, eta aldiz, ordurako hainbat pertsona ikusten ditut gure auzotik oinez bere bueltatxoan ematen. Bat bere txakurra lagun duelarik Usurbildik dator, bestea berriz Aginagaldera doa, hirugarren bat karakolak biltzen ari da, bikote heldu bat sasoi betean Usurbil aldera. Pentsatzen egoten naiz: *"hau zaletasuna eduki behar dena hau, ohean goxo goxo egon beharrean"*

egun osoa edukita, hain goiz horrela ibiltzea nahiago izateko". Egitan miresten ditut.

Orain eguraldi sargoi honekin, goizeko freskura nahi izatea ulertzekoa da, baina urte osoan, hotz edo euria egin, horrela ibiltzen dira, ordea.

Hain zuzen ere, gaur egun aisi tarreak ugariagoak ditugulako, eta batez ere osasunentzako medikuek oso ona dela gomendatzen dutelako, bere paseoak egiten dituen jende kopurua areagotzen ari da egunetik egunera. Horretarako, askok, Santueneatik, erriberan barrena gure txokorra datorren bidea aukeratzen

dute. Izan ere, leku laua da, eta asko nekatu gabe ibili daiteke. Gainera, galipotarekin konpondu zutenetik primeran dago ingurune hau.

Egunean zehar ez da giro. Jendearen joan etorria eten-gabea da. Usurbildik, Aginagatik, Lasartetik... hor pasatzen dira kontu kontari gure auzotik patxada ederrean. Batzutan prozesioa dirudi. Baserritar bat baino gehiagori entzun diot brometan esaten, hainbeste begirada aurrean eta hainbeste lagun agurtu beharrean, lotsa pixka bat ere ematen duela zenbaitetan soroan lanean aritzeak.

KALEBERRI

Santixabelen usaina

Ines Kamino



Sanjuanak pasa ondoren Santixabelak. Tartean San Pedro eguna ere izango da, baina egun horretan Usurbilen izango da festa. Aurten Santixabel eguna igandean denez, asteburu hori aprobetxatu, eta ekainaren 29tik, ostegunetik, izango da buila eta zalaparta gure kale hauetan.

Aurretik, ordea, zenbait ekitaldi prestatu dituzte jai batzordekoek. Zuek hau irakurtzerako "Euskal off" antzerkia ikusia izango dugu herriko frontoian, maskota ere hor gainean dantzari ibiliko da, eta "Usurbildarrek daukate III. jaialdia" hurrengo urte arte atzean utzita izango dugu.

Onena, ordea, iristeko dago oraindik, bost egunez gauza asko pasatzen baita. Nahi duenarentza nahi adina ekitaldi antolatu dituzte aurten ere, eta nahi duenak behintzat izango du zertan gozatua. Umeek lehendabizi, gazteek gero, adinekoek, jubilatuek... mota guztietako ekintzetan parte hartzeko aukera izango dute.

Gauetan, berriz, musikaren ordua izango da. Lo egin behar duenak nahikoa lan izango du egun hauetan. Frontoian dagoen musika taldeaz gain, txoznetako musika ere entzungo dugu, eta jendearen builak ere ez dira makalak izaten egun hauetan.

Ostegunean jende asko ibiliko denik ez dut uste. Kanpoko jendea San Pedrotan ibiliko da, eta herriko jende askok lana izango du, bai ostegunean eta bai ostiralean ere. Asteburuan, ordea, azken urteetan bezala, jende asko ibiliko dela uste dut.

Bestalde, eta Santixabelak alde batera utziz, beste kontu bat ere badaukat. Eserlekuak eliza ondora eraman dituzte, eta hauei estalkia jartzen hasi dira. Frontoira euria sartzen dela eta, irtenbide bat eman nahi diote arazo horri. Duela hilabete inguru hasi ziren lanean, baina oraindik ez dute amaitu.

KALEZAR

Su garretan kopla kantari

Sanjuan gaua, gau maji-koa! Bildu zakarrak, eta eman sua! Aspaldiko ohitura dugu hori, ez hemengoa bakarik, oraindik ere Euskal Herriko txoko gehienetan mantentzen baita ohitura hori. Baserritarrek beraien su txikia egiten dute baserriaren ondoan, zorte txar eta ezbeharrak uxatu, eta uzta onaren esperoan. Urteko gaurik motzena bada ere, eguna gehiago luzatzen dute Sanjuan suek.

Kalezar dugu horren lekuko. Urtero-urtero Sanjuan suak auzoko txoko guztiak argitzen ditu gaueko 22.00etatik aurrera. Garai batean borrokan ibiltzen omen ziren Kalezar eta

Kaleberrikoak. Batzuk besteei kendu, alderantziz hurrengoan, elkarren arteko borrokak ez omen zuten etenik izaten. Ez da gaur egungo kasua. Kalezarren ez bada ez da beste inon Sanjuan su haundirik egiten. Baserri inguruetan, bai, ikusiko dituzue, baina Kalezarkoari aurre egiten dionik ez.

Baina Kalezarkoak badu beste berezitasun bat. Su garrak ikusten ditugun bitartean bertsoak entzun ditza-kegu. Hor azaltzen dira arratsaldetik Sanjuan eskean ibiltzen direnak. Suaren berotasunean kopla ederrak bota izan dira Kalezarren. *"Dios te salve, ongi*

Joseba Pellejero



etorri gabon jainkoak diela, legearekin kunpli dezagun aita Sanjuanen bezpera"

Aurten, ordea, ezin Sanjuan suaz erabat gozatu. Norbaitek ordularia aurreratuta edukiko ote zuen? Dena dela, arratsaldeko 20.30etarako keak zerurako bidea hartu zuen.



ATXEGALDE

Makurtu beharko, bestela...

Dagoeneko hasi gara festarik festa, eta urtero bezala denbora puska baterako gainera. Egunez txukun txukun ateratzen gara festa giroa, baina gaua iristen deneko ahaztuak ditugu plantxatzen horrenbeste kostatu zai- gun alkandora zein galtza dotoreen zimurren berri izatea.

Atxegalden ez dugu festa girorik izango, herriko txistulari zein dultzaineroen esnadeiak kenduta, baina bai herrian bertan. Kalera ateratzean bidea garbia izango dugu, baina itzultzeko ordua jarria ez dugu- nok nahikoa komeria izango dugu; bidea ezagutuko dugu, bai horixe, baina tartean egon-

go diren oztopoei aurre egitea izango da zailena.

Garrantzitsua da espaloitik joatea, abiada bizian pasa daitekeen kotxeren batek sustorik ez emateko. Hala ere, espaloitik joateak ere bere arriskua dakar. Beharbada lau hantetan goizaldera etxeratu- ko direnak libratuko dira; izan ere, gainontzekook auzoko espalo- zein eskaileretan topatuko ditugun zuhaitzen adar- rekin onik etxeratzen nahikoa lan izango bai- tugu.

Zaloa Arnaiz



SANTUENEA

Auzotarrei erantzunez

Gutxitan egin ohi dugun ohitura ederra da hau, besteei entzutea. Besteentzat belarriak erne jartzea besteen-gandik ikasteko. Osasungarria dela esango nuke. Usurbil auzoz osatutako herri bat dugu, Aginaga, Zubieta, Santuenea, Txokoalde, etab. eta gure agintariei ahazten zaien eginbeharretako bat da hori. Horregatik, oraingo honetan belarriak ireki nahi izan ditut nire auzoan, eta hemen duzue emaitza.

Auzo honetan trafikoa asko haunditu dela eta ibilgailuen abiadura ere asko haunditu dela entzun dut. Auzoko zubi historikoaren semaforoa laranja jartzen denean denbora

ematen duenez, batzuk abiadura haundiarekin pasatzen dute. Umeak daramazkiten autobusak oso azkar pasatzen direla eta kexa bat baino gehiago entzun dut. Horretarako, asko gustatu ez arren, mantsotzeko pibote batzuk jartzea eskatu dute (baten bat alkate-arengana joan dela ere entzun dut).

Auzoan zegoen ikuilua bota zuten eta egin duten lan bakarra ingurua garbitzea izan da. Behin behineko aparkalekuak jarri beharko liratekeela esan didate. Sagardo garaian eta udaran gure auzoan ibilgailu asko pilatzen direla esaten dugunez, aparkaleku bat jartzea ez litzateke gaizki etorriko.

Agustin Esnaola



Beste kontu jakin bat Ingemarrek egin behar duen pabiloia-rena da. Terreno guztiaren luzerakoa egin behar badute, geratuko den "munstruoa" ikaragarrikoa izango da. Oinezkoentzat eta autoetan ibiltzen direnentzat itzalpean geldituko da bidea. Ura ez sartzeko 3 metro altxa eta gainean 10 metro alturako pabiloi bat jarriko omen dute. Noiz sartuko da eguzkia bide zati horretan?

Udalak duen indarrarekin, ezin daiteke Ingemar pabiloi txikiagoa eta atseginago bat eraikitzen behartu? Udaletxearen aldetik ahaztuta ez ote dago gure auzoa? Hori da nire galdera?

URDAIAGA

Bide bazterrak

Lehenik eta behin zorionak. Haimar. San Estebango aldapa hainbestetan igotzeak zedozerarako balio duela e! Zure Euskal Bizikletako garaipena eta Dauphine Libereko bigarren postua eguneroko entrenamenduaren ondorio direla jakin arren, San Estebango aldapa txiki hori hainbeste aldiz igotzeak izango du bere eragina.

Beste gai bat hartuaz, esan behar azken aste hauetan udaletxeko langileak sarri ikusi izan ditugula gure auzoan. Batetik txabola egiten eta bes-

tetik bide bazterrak garbitzen. Egia esan premia ere bazuen, izan ere, kurba inguruetan ez baitzen inor zetorrenik ere ikusten eta honela nahigabeko arriskuak sortarazteko arriskua begibistekoa zen. Nahiz eta istripurik ez den suertatu arrisku handia sortzen zuten adar handiak moztu eta bide bazterrak ederki garbitu dituzte.

Arriskuen kontuekin jarraituz, honetaz gain bada beste arrisku puntu bat gure auzo honetan. Txabola berria egin duten kurba berean alegia.

Euri pixka bat egiten duen

Eider Jauregi



bakoitzean kurba inguruan frenatzerakoan asko gara autoaren kontrola galdu dugunok. Inork ez daki zergaitik gertatzen den fenomeno hau. Badi-rudi aldaparen goikaldean kokaturik dagoen torre altu horrek dituen produktu toxikoren baten eraginez suertatzen dela!

Egia esan, nork daki fenomenoaren arrazoiak zeintzuk diren, baina auzotarrek hala diote, eta hala izango ote!

Beraz, euria egiten duen bakoitzean gure auzora etortzeko asmoa baduzu, badakizu, kon-

AGINAGA

Aginagarrak herri kiroletan

Oxkar Santamaria



U dara heldu da, eta honekin batera festak izango dira alde guztietan. Hala ere, badakizue aginagarrek parranda bakarrik ez dutela egiten. Aurten ere, azken urteotan bezala, auzoko gazte eta ez hain gazteak, hasiak dira sokatirarako eta herri kiroletarako prestatzen.

Dagoeneko Euskal Herriko hainbat herritan beraien erakustaldiak egiten hasi dira. Andoainen izan ziren, esaterako, pasa den larunbatean, beraien esanetan, gainera, maila ona emanaz.

Santixabeletan izango dute, bai, beraien maila erakusteko

aukera, baina entzun dudanez, Aginaga eta Igeldo bakarrik izango dira aurrez aurre. Hori jakinda galdera bat dabilkit buruan: surbilen bertan ez ote dago indarrak ala beldurra ote dute?

Hau esanda erronka bat bota nahi diegu usurbildarrei: nahi badute Sanpraixkuetako sokatira txapelketan parte hartu dezatela. Beno ba, hau esanda hasi daitezela entrenatzen.



ZUBIETA

Hipodromoko bihurgunea

Olatz De Miguel



Behin udaran sartuta, jendea gehiago animatzen da Zubietako plaza aldera edota hipodromora etortzera bere arratsalderoko paseotxoak egitera. Azken toki honetan, ordea, jende ugari gain, kamioi eta kotxe asko ikusteko aukera izango dugu, asko eta asko bidearen bihurgunean aparkatuta. Gidari eta oinezkoak ikusgaitasuna kentzen diotela da arazoa, kotxeren bat datorren begiratu... bihurgune horren arriskuei beste bat gehituz. Eta arazoa ez dut uste toki falta denik, lekua soberan baitute hipodromo ondoko aparkalekuan. Denok dakigu bide zati hori goera onenean ez

dagoela, nahiko itxia baita, baina gauzak asko erraztuko liriteke jendeak kotxe edo kamioiak bertan utziko ez baitu.

Bestalde, edukiontzientzat den kontenedore berri horietako baten beharra ez da zubietar gutxi batzuen beharra, Santuenea edo Lasarte aldera gerturatu beharrean aurkitzen baikara gutako asko eta asko. Ea laister dugun zakarrantzi horia besteen ondoan.

Azkenik, San Juan egunaren ospakizuna dela eta Zubietan afaria

antolatu da. Hau idazten naizenean ez da oraindik sanjuan eguna iritsi, beraz, ondo igaroko al zen! Afariaz gain, Euskal Herriko beste hainbat tokitan bezala, hemen ere sua edukiko dugu etxe eta baserrietan.



Amador Granados: "Guk ez dugu dirurik irabazten, galdu baizik"

Beste batzuk baino beranduago iritsi zaio garaipenaren gozotasuna dastatzeko aukera. Ez da Indurain, ezta Haimar Zubeldia ere, baina bai Amador Granados, ezinduen mailan txirrindularitzan Espainiako txapelduna. Hori bai, beste askok ez bezala, Sidney aldera joan eta paraolimpiadetan parte hartzeko aukera izango du. Guzti honegatik, aldez aurretik Lolori, Goyori, Ramon Unanueri, lagunnei, familiartekoei eta alboan izan dituen guztiei eskerrak eman nahi dizkie.

Noiz eta nola hasi zen bizikleta eta zure arteko hartu emana?


Bi hanketan operazioak izan ondoren, medikuak kirola egiteko esan zidan. Hasieran igeri egiteko gomendatu zidan, baina garai hartan inguruan ez zegoen kiroldegirik. Horregatik bizikletan ibiltzea ere ona izango zela esan zidan. Aitarekin Michelingo zikloturista taldean sartu nintzen eta hor ibili ginen hara eta hona. Gero urte batzutan utzi egin nuen, baina orain dela hiru urte hasi nintzen berriz.

Jaiotz geroztik duzu hanketan gaixotasuna?

Bai, jaiotzetik. Hankak okertuta jaiotzen, eta operazioen bidez nahikoa zuzen ditut orain. Bizikletan ibiltzerakoan orkatilak ezin ditudanez erabili "gemeloekek" ez didate lanik egiten. Mendateak gogorrek direnean nabaritzen da hori.

Ezinduen txirrindularitzan maila ezberdinak daude ezta?

Medikuek esaten dute zein gradutako ezintasuna duzun, eta horren arabera maila bate



an edo bestean sartzen zaituzte. "LC1" ezintasun gutxiena dutenen maila da, Ni, berriz, "LC2" mailan nago. Gehienek hanka osoa izaten dute geldituta, edo nire kasuan bezala bi hanketan belaunetik behera. Azkenik, "LC3" an sartzen dira hanka edo besoren bat edo biak moztuta dituztenak. Harri-garria da besorik ez duen jendea bizikletan ikustea.

Eta nola sartu zinen kompetiziozko txirrindularitza mundu honetan?

Duela hiru urte Lazkaoko Emilio Sanchez ezindua, txirrindularia hau ere, ezagutu nuen mediku azterketa batean, eta berak sartu ninduen mundu honetan. Medikuek azterketa bat egin zidaten ea ezinduen zein mailatan korri behar nuen jakiteko. Orduan Emilio San-

chez-ek bera zegoen Gasteizko "Zuzenak" taldean tarte bat egin zidan.

Gertuago ez al dago ezinduen txirrindulari talderik?

Orain arte ez. Duela urtebete-tik hona Kemen taldeak txirrindulariak baditu, baina beste ezinduen taldeek beste kirol-tan bai, baina txirrindularitzan ez dute talderik. Talde batetan federatuta bazaude eta kirolen bat egiten baduzu arlo horretan dauden txapelketen berri ematen dizute.

Jubenil, afizionatu eta profesionalak laisterketa ugari izaten dituzte, eta zuek?

Guretzat laisterketa gutxi antolatzen dituzte. Iaz Bilbo eta Gasteizen egin zen Espainiako txapelketa eta Bartzelonan antolatu zuten laisterketa bakarririk izan genituen urte osoan. Horregatik, aurten, jubeniletako laisterketetan parte hartu dut forman jarri ahal izateko. Federazioari baimena eskatu genion eta ez zidaten trabarik jarri.

Avilesen jokaturako txapelketan lehen postuetan ibili zara.

Halaxe da, bai. 12 kilometroko erlojupekoan bigarren pos-

"Medikuak bizikletan ibiltzea nire hankentzat ona zela esan zidalako hasi nintzen honetan"

tuari gelditu nintzen. Oso ibilbide gogorra zen %10eko portzentaia zituzten 800 metroko bi maldekin. Lehenengoa azkarregi igo nuen eta gero nabaritu nuen hori. Pistan, berriz, kilometro bat egin genuen eta hor lehen postua eskuratu nuen. 45 kilometroko karreterako proban ere irabazlea ni izan nintzen.

Lortu dituzun emaitzekin gustora ezta?

Aurten bai. Laz entrenamendu gogorak egin nituen, baina ez nuen nahi bezalako emaitzik lortu, proba guztietan hirugarren postua eskuratu bainuen. Ez nintzen gustora gelditu, gehiago egin nezakeenaren sentsazioarekin gelditu bainintzen.

Ezintasun maila ezberdina duzuen jendea bilduko zineten ezta?

Espainiako txapelketa ikusiko bazenute txundituta geldituko zinatekete. Hoteleko garbiketako emakumeak adibidez lanera joatean beti bizkarreko mina edo beste zerbait izaten zuela esaten zuen, baina gu ikustean min guztiak pasa omen zitzaizkion. Bere herrian farola bat bezala zeruari begira egon zitezkeen ezindu eta atzeratuak bizikletan ibiltzen ikusten dituzu, ondo pasatzen, jende normalarekin hitz egiten...

Aurten Ramon Unanurekin hasi zara entrenatzen.



Eta oso gustora nago berarekin. Laz egiten nituen entrenamenduak eta aurten egiten ditudanak zeharo ezberdinak dira. Serieak egin arazten dizkit, kilometro gehiago edo gutxiago egin behar ditudala esaten dit... orain adibidez, berriz ere indarrak hartzeko bi astez atse den hartzeko agindu dit. Izan ere, aurtengo urtea oso garrantzitsua da. Urriari paraolimpiadak dira Sydnei-n, eta oraingoz aurre selekzioan sartu gaituzte Lazkaokoa eta ni. Maila bakoitzean bi lehenengo postuak eskuratu dituzten txirrindulariak joango direla esan digute, eta gauza arraroren bat gertatzen ez bada behintzat han izango naiz.

Paraolimpiadetan zerbait haundia egiteko asmorik bai?

Zaila izango da. Alemanak, frantsesak, estatu batuarrak urteak daramatzate honetan. Ez dira profesionalak, baina antzekoak bai. Izan ere bekak

Urriari paraolimpiadak dira Sydnei-n, eta oraingoz aurre selekzioan sartu gaituzte Lazkaokoa eta ni

jasotzen dituzte, patrozinadoreak dituzte, laguntzak... denetik dute. Hemen berriz, ez dute inolako laguntzarik ematen.

Inoiz pentsatu izan al duzu Paraolimpiadetara joan zintezkeela?

Ez, ezta pentsatu ere. Hori zen nire helburua, nahia helburua baino gehiago. Oraindik amets bat besterik ez da. Hegazkinean nagoenean hasiko naiz sinisten. Michelingo taldean ibiltzen nintzenean pentsaezina zen hondaino iristea. Garai hartan ez zegoen inolako txapelketarik. Lehen txirrindulariak izan eta istripuren bat izan dutenak jendeari lagundu beharreko mundu bat badagokela konturatu dira.

Egunero entrenatzen al duzu?

Serio hartu dudanetik, hau da azken hiru urteetan, ia egunero entrenatzen dut. Laisterketaren baten ondoren astelehen bat edo beste jai hartu izan dut, baina gainerantz egunero egiten dut zerbait, batzutan gutxiago, bestetan gehiago... Entrenamendu normal batean 90, 100, 120 kilometro egin ohi ditut. Aurten 8.000 kilometro inguru daramazkit.

Txirrindulari profesionalak diru asko irabazten dute, eta zuek?

Guk ez dugu dirurik irabazten, alderantziz baizik, bidaiak ere ordaindu egin behar izaten ditugu. Avilesko bidaiak guk ordaindu dugu. Lehen dietak ordaintzen zizkiguten Espainiako txapelketara joateagatik, baina orain ekonomia arloa gaizki doanez ez digute ezer ordaintzen.

Eta babeslerik baduzue?

Aurten Euskaltel-en laguntza izan dugu. Kataluniara joan ginenean kotxea jarri ziguten, txirrindularitzarako erropak eman dizkigute, kaleko erropa ere bai... Normaltasun tratua ematen saiatzen dira.


Josu Aranberri

Zubietako zerraren atzean parke bat egin nahi du udalak

Zubietako zerraren atzean, Oria ibaiak zeraman bidea hobetzeko egin ziren obren ondorioz, 3.700 m²ko zelai bat sortu da. Lur horiek udalak erosi ditu orain, eta laister batean, lehu horretara doan bidexka txukundu eta parke antzeko bat egiteko asmoa dute zelai horretan.

Oria ibaia desbideratzeko lanak egin zirenean, lurjabe pribatuen lurrak hartu zituen Eusko Jaurlaritzak. Lur horien truke, ordea, beste batzuk emango zizkiela agindu zien. Lur horiek ematen ez dizkiela ikusita, udalak, lurjabe bati zegozkion 3.700m²ak erosi eta zerra atzean dagoen metro karratu kopuru bereko zelaia bereganatu du.

Zubietan Usurbilek duen lur-zatia haundiagotu egin da lur erosketa honekin. Lehen



Zubietako zerra zen muga, baina hemendik aurrera zerra horren atzean dagoen zelaia ere Usurbili dagozkion lurrak izango dira.

Gaur egun leku horretara joateko bidezidor bat badago ere, bidexka hori txukuntzea

da udalaren asmoa. Izan ere, zelai horretan parke antzeko bat jartzeko nahia agertu du udalak. Honela, Oria ibaiaren ertzetik ibilalditxo polit bat egiteko aukera izango lukete leku horretan ibiltzen diren guztiak.

“Sindikatu” Ugarte industrialdera pasako dute



Kale Nagusian etxebizitza gehiago egiten hastekotan dira. Txaramuntoko etxeak eraikitze lanak aurrera doazen bitartean, orain “sindikatu” dagoen lekuan ere etxebizitza gehiago egiten hasteko dena prest dute. Horretarako sindikatuarentzat leku berria aurkitu behar zuten, eta dagoeneko badakigu zein izango den honen kokapen berria. Ugarte industrialdean, Kalezarren, 500 m²ko pabeloi berri bat eraikiko dute, eta hori prest egon bezain laister bertara joan beharko dute sindikatuaren zerbaitek erosi nahi duten guztiak.



USURBILGO
EUSKO ALKARTASUNAK

JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZUE
USURBILDAR GUZTIOI!



ZUMETA
JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Itsaski entsalada hozberoa trufa zaporez
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta pikilo piperraz haragi saltsatan
- Etxeko azkenburuko degustazioa
- Ardo berezia eta kafea

3.200 pta.

Kale Nagusia, 9 USURBIL
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

Ondo pasa
Santixabelak!

LABE-GOXO
Ondaregia - Gogotegia

SANTIXABELAK 2000

Noaua!!!





SANTIXABELAK

Hasierakoa

Santixabeletan, lotsik ez!

Aupa Santixabel Eutsi goiari! Prakkak, alkandorak, gonak eta soinekoak prest? Festarako gogoak irentsiko al ditu gure eguneroko penak. Bost egun ditugu aurretik, ume, gazte, ezkondu, mutilzahar eta neskazahar eta adin-
duak asetzeko ez da Oria ibaira anguletara joan beharrik izango. Busti beldurrik gabe, salta aldamenekoari begiratu gabe, egin dantza hezurak nekatu arte, Santixabelak urtean behin izaten dira eta!

Lotsarik ez duenak duenari lotsa ematen omen dio. Baina Santixabeletan ez dugu lotsarik behar, on eginak inon ez baitu lotsik izaten. "Hau da guztion jaia, festa eta parranda" oihukatuko digute herriko danborjoleek. Sartu festan zu ere, parte hartu jaietako ekitaldietan, ahaztu eguneroko monotonian egiten ditugun gauzak. Ixabelek barkatuko al digu!



Umeen txanda izango da lehendabizi. San Pedrok bedeinkatuta jokoz-joko ibiliko dira buruhaundi eta erral-
doiak tartean hartuta. Oilaskobiltzaileek hartuko dute hauen lekukoa. Makila bizkarrean hartu eta... egurra! Afaria irabazi asmoz baserri-z-baserri ibiliko dira oilasko bila.

Festak hasita egongo badira ere, Santixabel bezperan ikurrina igo beharko du Santixabelek bidaliko duen ordezkariak, alkateak noski. Ziur ez dituela herriko preso eta erre-fuxiatuak ahaztuko!

Santixabel eguna izango da hurrengo, bigarrena ondorengoa... eta akabo festak! Biharamunari buelta eman eta egunerokotasunera itzultzeko izango da nahikoa lan. Ondo pasa duenak izango du zeri heldua. Ixabelek lagunduko al digu!



Kafe berezia eta sagardoa nahi adina!

San Esteban kalea, 8
Telf: 943 36 27 70



LEIHO- FABRIKATZAILE ONENA

Itxitura mota guztietan espezializatua

VENTANAS SAN MIGUEL

OSINA KALEA, 6
943/ 36 24 57
20170 USURBIL

KIROLAK



MODA

Festen ondoren MERKEALDI!

Telf.: 943 366542

Ondo pasa Santixabelak!

Santixabel zoriontsuak denoi!



Ana Olasagasti

MAPFRE ASEGURUAK

Etxebeste kalea, 9 Telf: 943 36 00 83



Herriko bandera berriaren estreinua

Santixabel bezperan egingo den ikurrinaren igoe-ran berrikuntza bat topatuko dugu. Ikurrina betikoa izango da, baina bere aldamenean egongo den herriko bandera ez. Herriko harmarriaren itxuraldaketa ondoz bandera berria egin behar izan dute, eta Ixiar Pagola izan da bandera berriko harmarria ahalik eta honbekien josi duena.

Ekainaren hasieran eman zioten enkargua, eta Sanjuane-tarako egina zuen **Ixiar Pagolak** bere lana. Oihal txuriaren gainean, puntadaz puntada fondo gorria, zuhaitza, basurdea eta urre koloreko goiko bi paneltxoak jarri dizkio. "Ez da zaila izan, baina ordu asko sartu behar dira. Astegunetan egunean 2-3 orduz jardun dut, eta astebukaeretan gehiago. Oihalari puntadaz puntada egindako panel gorria jarri, zuhaitza, basurdea... honek eman dit lan gehiena. Hasieran ez nengoen gustora basurdearekin, baina muturrean konponketa batzuk egin dizkiot, eta orain gustorago dago".

Harmarriak 65 zentimetroko altuera du eta zabalera, berriz

52 zentimetro ingurukoa. Horrez gain, azpian "Usurbilgo udala" esaldia erantsi diote. Hori bai, bandera bera askoz ere haundiago da, metro bateko altuera eta bi metroko zabalera baititu.

65 zentimetroko altuera du armarriak, zabalera, berriz, 52 zentimetrokoa

Beldurrez ekin zion lan honi Ixiarrek. "Gauza haundia, delikatua da hau egitea. Ez dakizu nola aterako zaizun eta badakizu aurrerantzean udaletxean egongo dela ikusgai. Egindako lanarekin gustora gelditzen ez bazara beti gelditzen zaizu kezka hori". Hala ere, harmarria oso ondo gelditu dela esan beharra dago. **Ixiar Pagola** ezta jostun profesionala, eta 13 urterekin ikasten hasi zen lan horrek eman du bere fruitua. Hemendik aurrera udaletxe aurrean urte askotan ikusi ahal izango dugu. Santixabeletan, behintzat, haizeak astinduko du bost egunez.



Kukurrukuka

Herriko festak direnean apain eta dotore jantzita ateratzea ohikoa izaten da. Santixabel egunean, behintzat, soineko, gaitza eta alkandora dotore plantxatu berriak nonnahi ikusten dira. Baina ez hori bakarrik, orrazkera ere zaintzen du jendeak. Santixabelen bezperan, ileari toke berezia ematea atsegin duenik ere bada gure artean. Ni ileapaindegiko **Ines Kamino** eta **Nati Arrutiren** esanetan jendea gehiago prestatzen da egun hauetarako. "Jendea ilea txukuntzera etortzen da egun horietan. Ilea tintatu, permanentea egin...lan tekniko gehiago egin behar izaten ditugu. Batez ere jubilatuek, bazkaria izaten dutenez egun horretarako txukun jartzera etortzen dira".

Hala ere jendeak ez omen du ile mozketara berezirik eskatzeko ohiturarik. "Orion eta Zarautzen jendeak gauza bereziagoak eskatzen ditu jaietan. Hemen jendea ez da hainbeste ausartzen. Badaude batzuk, baina gehien-goak normalean egiten duen apainketa egiten du Santixabeletarako". Adineko jendeak egun hauetarako ileapaindegira joateko ohitura haundia omen du. "Afariren bat dutenean batzuk etorri izan dira, baina jende gaztea Santixabeletarako orrazkera txukuntzera etortzea ez da askotan gertatzen".

**ANTXETA
TABERNAK**
jai zoriontsuak
opa dizkizue!

Eguskita, 4 Tlf: 943 37 03 44

Floxbin: bajua, gitarra eta musika kaxa bat

Floxbin taldekoek ez dute asko behar bere pasioa den musika egiteko: bi partaide eta musika kaxa bat. Joseba Agirresarobe "Txofo" eta Ricardo Gonzalez "Riki" dira. Datorren ekainaren 30ean joko dute lehen aldiz herriarren aurrean. Ez da txantxetako gauza, Etsaiak eta Ekon musika talde famatuak izango baitituzte talde lagun. Beraiek esaten duten bezala: EGURRA!

Nolatan hasi zineten elkarrekin jotzen?

J: Rikiri ea nirekin musika talde bat osatu nahi zuen esan nion. Honek baietza eman, erritmo kaxa batekin ensaiatzen hasi eta kantak ateratzen joan ginen.

R: Nik lehen Lope eta Txurirekin jotzen nuen, baina ez genuen batere jotzen eta zerbaite serioa-goia nahi nuenez onartu egin nuen Josebaren roloa.

Nola definituko zenukete zuen musika?

J: Guk musika estilo propioa daukagu, ez baitugu inongo eredurik jarraitzen.

R: Gu gara gure musika estiloa lantzen dugunak, bakarrak gara.

Zenbat abesti dituzue?

J: Zazpi kanta daukagu, orduerdia, berrogei minutuko ikuskizuna.

Zer gai jorratzen dituzue zuen kantetan?

J: Oraingoaz kanta bakar batek dauzka hitzak, eta nik egindakoa da hori. Santixabeletarako gehiago egiteko asmoa daukagu.



R: Asko kostatzen zaigu musikari letra jartzea, izugarrizko pereza izaten dugu horretarako.

Eta maketa noizko?

J: Udara aldera maketa bat grabatzea espero dugu.

Bi bakarrik zarete taldean, taldekide gehiago hartzeko asmoirik ba al duzue?

J: Ez ta pentsatu ere, gu biok nahikoak gara. Hemendik denbora batera efektuak sortzeko sampler bat erosteko asmoa daukagu, baina bien bitartean erritmo kaxa, Rikiren baxua eta nire gitarrarekin moldatuko gara. Abestu, berriz, nik egiten dut.

Orain arte zenbat kontzertu eman dituzue?

R: Bakarra. Zarautzen jo genuen eta desastre bat izan zen. Hasieran gu ginen jo behar genuen lehenengoak, baina azkenean bigarrenak izan ginen.

Aurreko taldeak bi orduz jo zuen eta... Berrogei minutuko emanaldia badugu ere, ordu eta erdiz egon ginen oholza gainean. Hala ere jendeak ondo pasa zuen, eta guk ere bai.

Ekon eta Etsaiakekin jotzen duzue Santixabeletan. Beldurrik bai?

R: Gure bigarren kontzertua bada ere ez dugu beldurrik, ahal duguna egingo dugu eta kitto. Gustora gaude, soinu aldetik ekipo on batekin joko dugu, eta gainera, herriatarren aurrean. Hala ere, leku txikietan jotzea nahiago dugu, festetako oholza haundiegia izango baita gu biontzako.

Nolatan jarri diozue taldeari Floxbin izena?

J: izen hori nik asmatutakoa da, ez dauka esanahirik. Hori etorri zitzaidan burura eta aurrea.



AIZPURA

MITZAGA

HERRIKO

TABERNA

Askatasunerantz, Elkartasunez!

Pintxoak, bokatak, plater konbinatuak, ... prest ditugu festetarako!

Euskal presoak etxera!

Aizpurua



Festetan zure mahaia ondo hornitu nahi baduzu gurean duzu aukera!

Telesforo Ardoak



Kale Nagusia, 25 Telf. 943 36 12 20



Berehala ikusiko gara!

**AIZPURUA
AUTOBUSAK**

Jai zorientsuez eta oporraldiez goza dezazuela opa dizue!






Osinalde Industrialdea
Telf: 943 36 32 90- 943 36 10 94
Faxa: 943 36 32 96



gramak. 1961-2000

rama atera-
izeko kon-
teak etorri
rretxen
ara fes-
sartze-
urtetik
diren
n
n





Kale Nagusia

Telf: 943 366818/ 362141

ARANTXA@es.ceac.com

Uztaileko eta abuztuko
goizak ikasteko aprobetxatu
nahi badituzu....
klaseak goizez zure eskura
dituzu!

Ondo igaro festak!

BORDATXO EDARITEGIA



PINTXO BEREZIAK ETA
BOKATA HAUNDIAK
SANTIXABELETANI

Aritzeta, 2 Telf: 943 37 10 42

A. BRUÑO E HIJOS S. L. ANGULAK ETA ITSASKIAK




- Kamaroiak
- Langostinoak
- Karakelak
- Nekorak
- Lanpernak
- Buia
- Zentolloa
- Mixera
- Ardo txuria

7 0 0 0 p z t a .

Menu ezberdinetako
aurrekontuak egiten ditugu

Egin ezazu zure eskaera
telefonoz:
943 37 27 88 USURBIL
Legarde Kaleko Zumartegi



Elexpe

Estetika zentroa

Tatuaiak

Betileen trukaketa
eta permanentea

Estetika

Solariuma



Monalerra 2

20170 USURBIL

☎ 943 37 04 62



Ondo pasa Santixabelak!

ILEAPAINDEGIA

MARGOAK- PAPERAK

FERNANDO PINTURAK

ENPAPELAKETAK ETA
PINTURAK OROKORREAN



Kale Nagusia, 1
Tlf: 36 60 19- 36 34 60



Maite Borda

Medikuntzan eta zirugian lizentziatua

- * Medikuntza orokorra
- * Analisi analitikoak
- * Dieta pertsonalizatuak
- * Gantzen neurketa
- * Mesoterapia
- * Terapia fisikoa
- * Maila txikiko zirurgia
- * Aurpegiko peelinga
- * Liposukzioa

Ola kalea 14 behea, Lasarte-Oria 943 36 06 90

N•I

ILEAPAINDEGIA
MIXTOA

Ondo pasa
festak!

**Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura**

Aritzeta 2- 2, 1.A Telf: 943 36 19 51

LIGATZEKO TAKTIKAK

Ligatze kontuetan besteak noiz inguratuko zain egotea nahikoa duzuenok ez duzue artikulu honen beharrik. Artikulu hau, Santixabeletan neska-mutiletan ibiltzeko orduan izerdi franko egin behar dutenei begira dago; hamaika bide jorratu behar izaten dutenei begira alegia.

1- Begirada

Ligatze lekua ez da Tolosako feria. Hala eta guztiz ere, batzuek "gana-dua" ondo begiratu behar dute, goitik behera, ea akatsik ote duen. Zenbait txekor eta zezenek gustukoa dute azterketa begirada hori. Dena den, begietara begiratzea izaten da ohikoena eta egokiena. Zein begirada mota? Nahi adina dituzu: ausartarena, lotsatiarena, etengabekoa, "orain bai, orain ez", keinuren bat edo beste tartekatuta... begiekin ligatu nahi duzuna desgastatu gabe, noski!

2- Hurbiltzea

Tabernan edo frontoian egonez gero, dantzan hurbil zaitzeko. Baina herri honetan Fred Astaire, Ginger Rogers edo Edu Muruamendiaraz gutxi dagoenez, hobe duzu dantza alde batera uztea. Izan ere, zure burua bestearen oinak zapalduz aurkeztea ez da oso gomendagarria izaten.

3- Hizketaldia

Hizketan hasteko aitzakia bilatzea garrantzitsua da. "Ikasten ala lanean" galdera ospetsua ez dago modan. Horrez gain, zure asmoak agerian baino ageriago utziko dituzu esaldi horrekin.

Ondoren, gairen bat aukeratu behar da, noski. Hemen psikologiaz ulertzen dutenek abantaila dute; bestea nolakoa izan daltekeen aurrekusi eta bere gustukoak diren gaietara jotzen dute. Poltsikotik gai zerrenda bat ateratzea itsusia izaten da.

4- Erretreta

Zure saioa alferrikakoa dela ikusten duzunean, atzera egiten jakin behar duzu. Bestela, zure ospea



lau haizetara zabalduko da: astuna, aspergarria, goseak joka... Honez gero, batek baino gehiagok agortuak ditu aukera guztiak, ospe hau jo ta ke landu ondoren. Egia esan, batzuk ez dira inoiz konkurtatzen besteak ez duela inongo interesik. Hala ere, zoriontsuak izaten dira. Eta hori ere garrantzitsua da.

5- Agurtzeko ordua


Betiko zalantzak: musua bai ala ez, "udaletxe alde-ra paseotxo bat ematera eramango aldu?", telefonoa eskatu, hurrengo zita noiz?... Nerbioek jota zaude eta zure etorkizuna jokoan dagoela sentitzen duzu. ez da hainbesterako. Dena dela, burua, bihotza eta zenbaitetan beste gauza batzuk hotz izatea garrantzitsua izaten da. ez beti, ordea.

6- Hurrengo zita

Nahi baduzu, noski. Eta zita honen ondoren, beste bat. Eta gero, beste bat. Beharbada, Hollywoodeko gidoilariak jasotzeko moduko maitasun istorio erromantikoa eta pasioz betea bizitzera iritsiko zara. Batek daki!

OHARRA: Artikulu honek ez badizu ezertxo ere argitu, lasai, normala da. Zuk bezala, beste askok eta askok artikulu hau irakurri dute; gai honetan inor gutxi baitaki nola jokatu. Bestela, badakizue, Urkiolan dago San Antonio.

PATRI JATETXEA



**Egunero bazkariak
eta afariak**

Kale Nagusia, 6 Telf: 943 36 27 25

Txiriboga Taberna



**Santixabeletan ere
presoak etxera!**

*Pintxoak, bokatak
plater konbinatuak...*

Irazu kalea, 3 -Telf: 943 37 00 13



ESTRELLA ASEGURUAK



Markel Olaizola
Aseguru Agentea/ Zbk. 200009

**Mota guztietako aseguruak
zure zerbitzurako**

**Santixabel jai egunak
Estrellarekin izartu
gabe, goza dezagun
lagunak**

Zubiaurrenea, 10

Tel: 943 37 18 07 - Faxa: 943 37 63 41



SANTIXABELAK

Egitaraua

Ekainak 29, osteguna Umeen eguna

- 9:30etan: **KULKI**, iparraldeko jokoak
 Egun guztian: gazteluak eta zezen mekanikoa
 Eguerdi aldean: tonbola eta hamaiketakoa
 13:00ean: Buruhaundi eta erraldoiak txistulariekin.
 17:00etan: **GOLOKA** antzerki taldea eta ondoren txokolatada
 19:00etan: Buruhaundi eta erraldoiak txistulariekin
 19:00etan: **Txoznen irekiera**, JAIK BAI, BORROKA ERE BAI! etxeferoak, trikiti jaialdia eta poteoa.
 Ondoren: herri afaria txoznetan eta afalostean bertsolari gazteak.
 23:00tan: **AMAIA ETA KRISTINA** pilotalekuan

Ekainak 30, ostirala Oilasko biltzaileen eguna

- 06:00tan: txokolatada eta oilasko biltzaileen irteera
 12:30ak aldera: oilasko biltzaileen itzulera.
 14:00tan: oilasko biltzaileen bazkaria.
 16:00tan: futbito txapelketa txoznetan
 16:30tan: **SANTIXABEL X. IGEL JOKOA** Gure Pakea zahar egoitzan.
 19:00tan: Buruhaundiak eta erraldoiak trikitalariekin.
 20:00tan: **TORTILLA TXAPELKETA** txoznetan
 23:00tan: Rock kontzertua: **ETSAIAK, EKON eta FLOXBIN.**

Uztailaren 1, larunbata Preso eta errefuxiatuen eguna

- Egun guztian zehar: dultzainero eta trikitalariak.
 11:00etan: **TOKA TXAPELKETA** dema plazan.
 12:00etan "PRESO ETA IHESLARI POLITIKOAK **SANTIXABELETANI!**" martxa.
 14:00tan: ZIKIRO JANA
 17:00etan: **HERRI KIROLAK: IGELDO eta AGINAGA** auzoak aurrez aurre.
 18:00etan: **HAURREN DANBORRADA, TIRRI TARRA** fanfarrearekin.
 19:00etan: Buruhaundi eta erraldoiak dultzaineroekin
 19:30etan: preso eta errefuxiatuei omenaldia
 22:00etan: BERTSOLARIAK herriko pelotalekuan: **JEXUX IRAZU, JOKIN SOROZABAL, XABIER SUKIA, IBAI ESOAIN, ANDONI EGAÑA eta XEBASTIAN LIZASO.**
 Gai jartzailea: **JOXE MARI IZETA.**
 Ondoren: **XXIV. SANTIXABEL BERTSOPAPER LEHIAKETA**ko sariak banatuko dira.
 24:00etan: ikurrinaren igoera alkatearen agurrarekin eta ondoren **HELDUEN DANBORRADA TIRRI TARRA** fanfarrearekin.
 Jarraian: **IZOTZ** taldearekin gaupasa.



mota guztietako errotuloak

IBILGAILUAK - ERAKUSTORIAK
PANKARTAK - KARTELAK ..

Jaiak ondo pasa !

Kale nagusia, 2
Fax : 36 60 21

ONDO PASA!

ARRANDEGIA
MIKEL

Gaztañazpi, 1 - Tel.: 36 63 56
USURBIL





Uztailaren 2, igandea Santixabel eguna

9:00etan: Esnadeia txistulariekin
Egun guztian zehar: dultzaineroak
11:00etan: Meza Nagusia
12:00etan: Soka dantza eta jarraian salda eta lore banaketa

16:30tan: **IV.MUS TXAPELKETA** txoznetan
17:00tan: pelota partiduak:

OIAGA eta IRIARTE
aurka

MIKELPERIZENA eta ZILBETI

KASTELLANOS eta ELOLA
aurka

HUIZI eta ALBIZURI

Ondoren: piper banaketa

19:00etan: Idi dema **AIAKO TXINTXUA eta SANTUENEAKO** idi parez aurrez aurre.

20:00tan: Buruhaundi eta erraldoiak dultzaineroekin

20:00tan: kantaldia txoznetan: **AITZOL LASA**

23:00etan: **ETZAKIT**

Uztailaren 3, astelehena Zaharren eguna, gazte eguna txoznetan

07:00tan: **TXOKOLATADA**

08:00tan: **SOKAMUTURRA** Kale Nagusian

10:00etan: Esnadeia txistulariekin.

Egun osoan: dultzaineroak

12:00etan: **KRONO JAITSIERA** Arratzaindik

12:00etan: Meza

12:45tan: **HERRIKO DANTZARIEN emanaldia** pelotalekuan

14:00tan: Zaharren bazkaria Saizarren

14:30tan: Gazte bazkaria txoznetan

16:00tan: Harane futbol zelaian

Gazteen futbol txapelketa

16:30tan: Pala Txapelketaren azken finala

17:00tan: **Kuadrilla olinpiadak** txoznetan

18:00tan: Pelotalekuan **HARRIJASOTZAILEAK** eta **AIZKOLARIAK:**

PEÑAGARIKANO eta OLASAGASTI

20:00tan: Buruharundi eta erraldoiak dultzaineroekin

23:00tan: **LAIOTZ**

24:00tan: **Maskotaren erretzea**



Aseguru Artekiritza
Plaza Uzturre, 8
20160 Lasarte-Oria
Tlf: 943 37 11 18
Tlf.-faxa: 943 37 19 97
MS-051

TXAPARTEGI



Kale Nagusia, 9
Tel. 36 48 00

HARATEGIA

Aginaga
Tel. 36 19 07

Ondo pasa
Santixabeletan!



TXURRUT

**Giro eta musika
atsegina!**

San Esteban kalea, 1
Telf: 943 36 00 80

XABIER EDARITEGIA


Etor zaitez
eta dasta
itzazu
Goierriko
produktuak
-Idiazabal
gazta
-Beasaingo
odolkiak



Kontseju zarra, 13 Telf: 943 36 04 66



**TXIMINIA
ALTZARIAK**



ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

ALKORTA HARATEGIA

Santixelak
eta gero frutak
eta barazkiak
salgai!



Ondo pasa festak!

Behoko kalea,4 Telf: 943 36 57 42
Atxegalde



Tlf: 943 36 61 21

ELDUAIEN

HIZKUNTZ ESKOLA

Udarako goizak ondo pasatzeko...
etxeko txikienak zein handixeagoak...
goazen denok Ingelesa ikastera!



Zubiaurrenea, 6-behea Telf. eta faxa: 943 37 14 02



THE ARCH OF EUROPE
GOLD STAR AWARD
FOR QUALITY



► "Gazte eguna" lehen aldiz txoznetan

Aurten ere txozna gunea izango da frontoi atzean. Beste urteetan bezala, ekitaldi ugari antolatu dituzte aurtengo Santixabeletako. Uztailaren 3an herriko gaztetxeko kideek, txozna batzordeko kideekin batera, Gazte Eguna antolatu dute. Elkarlanean eginiko egun honek herriko gazteak biltzea du helburu.

Antolatzaileen esanetan, "egun horretan zaharren eguna ospatzen denez, txoznetan ere zerbait berezia egin behar zela pentsatu genuen. Hortik dator gazte egunaren ideia. Egun hau bete nahian, ekitaldi ezberdinak antolatu ditugu herriko gazteek parte hartzeko".

Goizeko zortzitan orain dela asko galdutako ohi-tura berreskuratuko dute herriko gazteek. Izan ere, urte asko pasa baitira kale nagusian azkenengo xexenak egin zirenetik. Gaupaseroak aukera bikaina dute aurreko gaueko garagardo eta kalimotxoak botatzeko.



Honez gain, beste hainbat ekitaldi antolatu dituzte; krono jeitsiera, gazte bazkaria, kuadrila olinpiadak,...

Beraz, aspertzeko unerik eskaintzen ez duen egitarau osatu dute antolatzaileek. Ondo pasa eta on egin!

BERANTZ AKADEMIA

OPORRETAN ERE ZABALIK

☞ Lehen hezkuntza

☞ D.B.H.

☞ Batxilergoa

☞ Heziketa zikloak

☞ Ingelesa

☞ Frantsesa

☞ Euskara

☞ Kontabilitatea, Estatistika

Ikastaro desberdinak ere ziurtatzen dira, hala nola: salmenta teknikak, telemarketinga eta abar.



B E R A N T Z
A K A D E M I A

San Esteban kalea 14, USURBIL
Tlf: 943 37 32 95

Sokamuturra Kale Nagusia, zezenak!

Zezenak, Santixabeletan haizue! Beltz-beltzak izango dira, adar zorrotzekin eta buztan motzarekin. Kontuz ibili uztailearen 3an. Goizeko 8.00etatik aurrera Kale Nagusia zeharkatu nahi baduzu, begiratu ondo bidearen bi aldeetara, izan ere zezenen bat ustekabeen azaltzen bazazu... ai ene! Aurten, aspaldiko partez, zezenei tartexu bat egin zaie Santixabeletan. Badira urte batzuk sokamuturra egiten ez dela, eta 2000 urtean sartu garenean, txoznetan gazte eguna izango denez zezenak Kale Nagusia gora eta behera ibiliko dira berriz ere.



Uztailearen 3an Kale Nagusia goizeko 8.00etatik aurrera

Sokadantzarik ez Santixabel egunean



Jailetako egitarauan bestelakorik agertzen bada ere, aurten ez da sokadantzarik izango Santixabel egunean. Duela bost urte berreskuratu zen ohitura zahar honek urtebeteko geldialdia izango du. Urte hartan udaleko zinegotzien dantzarako abilezia ikusteko aukera izan genuen. Hurrengo urteetan herriko irakasleek, tabernariak eta pelotariak egin behar izan zuten dantza hau. Aurten, iaz lau urterako legegintzaldia hasi zuten zinegotziei zegokien hankak astintzea, baina ensaioak egiten hasi baziren ere, ez dute pauso guztiak ikasteko nahi adina denbora izan, eta horregatik bertan behera utzi dute ekitaldi hau.

Uztailearen 2an ez da sokadantzarik izango udaletxe aurrean

Oilasko biltzaileen jokoak deman

Oilasko biltzaileek ez dute aspertzeko edo lo hartzeko beldurrik izango. Goizeko 6.00etan hasita herriko baserrietatik buelta egin, ondo bazkaldu eta agenda bete-betea izango dute arratsaldean. 16.00etan futbito txapelketa hasiko da txoznetan, eta horrez gain, orduerdi bat beranduago oilasko biltzaileen jokoak izango dira dema plazan. Globoak hara, globoak hona, irina alde batetatik, arraultzak bestetik... Santixabelak haizue!



Ekainaren 30ean arratsaldeko 16.30etan dema plazan



*Usurbilgo EAJ-PNVk
Santixabel jai
baketsuak opa
dizkizue usurbildar
guztioi!*

**PRESOEN ALDEKO OIHUA
ESPETXEETARAINO HELDU
DADILA ...**

**EUSKAL PRESOK
ETXERA!**

Ondo igaro festak!

**Usurbilgo
Euskal Herritarrok**

INTZA ILEAPAINDEGIA

ILEAPAINGINTZA
MANIKURA
PEDIKURA
DEPILAZIOAK
MASAJEAK
SOLARIKMA

Telf: 943 36 36 41

%10aren beherapena 25 urte-
tik beherako gazteei eta
Noaua!ko bazkideei



IRRATI TABERNA



Santixabeletan zai gauzkazu!

KRIBETZI

lentzeria eta perfume denda



Ondo igaro festak!

Zubiaurrenea, 10 Telf: 943 36 03 37



USURBILGO UDAL KIROL PATRONATUA



TEL.: 943 37 24 98

FAX: 943 37 14 93

Zaharrak baleza.....



1961ean Atano III.a bere txapel eta guzti etorri zen Mikel Urkia eta Joxe Kaminoren aurka jokatzera. Azkoitiar pelotari haundia ordu-rako adinean sartuta zegoen, eta herritarren alde zeuden apustuak, baina Atano mutil gazte batekin azaldu zen. Gazte hau nonbait tre-bea izan pelotan, eta azkenean, iragarpen guztien aurka, usurbildar bikoteak galdu egin zuen. Ez zen hortan gelditu guztia. Partida amaitu ondoren zera esan zien usurbildarrei: "orain bioi bakarrik jokatuko dizuet lau tantotara". Orduan bai, usurbildarrek 4-2 irabazi zuten.



Beste behin Retegi I ere etorri zen Usurbila. Sanjuanetan Hernanira joan eta Retegi I Usurbila ekartzea lortu zuten. Pelota partidua hastearekin batera euria goitik behera, eta frontoia estali gabekoa zenez partidua bertan behera utzi behar izan zuten. Patrin-en pelotariekin afaltzen ari zirela Retegi I-ak esan omen zuen: "honek horrela gelditu behar al du?". Partidurik jokatu ez eta kobratu egin baitzuten. "Datorren igandean zer jai dezue? Partida jokatu al dezakegu?". Esan eta egin, hurrengo igandean jokatu zuten partida. Sarrera bezala duro bat jarri zuten, eta baita jendeak erantzun ere. Retegi I-a aldagelatik noiz aterako zain egon omen zen jendea.



Baina neskek bazuten beste egi-terako bat Santixabeletan: zinta lasterketarako opariak prestatzea. Hemen ere, 14-15 urtetik gorako mutilek bakarrik parte hartzen zuten. Bizikletaren gainean joan eta makil batekin eraztun bat hartu behar zuten. Eraztun bakoitzak zinta bat zeraman eta zinta bakoitza herriko neska batena zen. Beraz, zintaren jabeak prestatuturiko oparia jasotzen zuen bakoitzak: zapiak, koloniak, karterak... Bestelako lanak ematen zizkien mutilei neska horien-gana hurbiltzeak! Dena bekatu zen garai hartan lan hori ez baitzen batere erraza.

Santixabel eguna festetako segun nagusia izaten zen garai batean. Urte guztian zehar ikusten ez ziren senitartekoak egun horretan bildu eta bazkari ederrak egiten zituzten. Hori bai, bazkaldu aurretik Meza Nagusira joan beharra zegoen. Bazkarian ohikoa zen oilaskoa. Haragi preziatua zen oso, ezin baitzen egunero jan. Bazkal ostean segituan hasten zen festa. Arratsaldeko 15.00etako trenean "Banda Inda" zeritzon talde donostiarra etorri eta 15.30etarako kalejiran hasten ziren. Arratsaldeko 18.30etan "Orquestina Beotibar"ekin dantza izaten zen beko plazan, orduko "Plaza de los Tilos"-en, gaueko 2.00ak arte.





.....gazteak baleki!



Lehen baserrietan estimatu egiten zuten oilaskobiltzaileak joatea. Orain edozein tokitara iritsi gaitzke, baina garai hartan baziren festa egun horretan bakarrik eza gutzen zuten baserriak. Ilusioarekin egoten ziren oilaskobiltzaileen zain. Andra madalen abestia jo eta jo eta fuego dantzan hasten ziren baserrikoak, urte guztiko dantza egiten zuten oilaskobiltzaileak iristean. Hala ere ligatzea oso zaila zen lehen. *"Bals-ean dantza egitea edo eta neskaren bati begiratzea ere pekatu zen eta garai hartan"*.



Urtero-urtero Udalak Andatzpe Elkarteko gazteen esku uzten zuten festak antolatzearen kontua. Urte hasieran festatarako dirua elkarre honetako gazteen esku utzi eta hauen ardura izaten zen Santixabelak antolatzea. Urte batean, ordea, Udalak berandu samar eskatu zien Andatzpekoei festak antolatze eta hauek ezetza eman zuten. Beraz, Udalak antolatu behar izan zuen guztia. Baina gazteak ez zeuden gustora eta protesta, festei boikota egitea erabaki zuten. Santixabel eguneko meza nagusira udalak gobernadore zibila gonbidatu zuen. Beraz, oso garrantzitsua zen udalarentzat dena ondo ateratzea. Mezan gazteen korua egon bazegoen, baina ez zen entzun, inork ez baitzuen abestu. Ikusi behar udaleko ordezkarien hase-rra!

Santixabeletako hirugarren egunean oilasko biltzaileei zegokien festa giroa sortzea. Herriko gazte ezkongabeak goizean goiz bildu eta baserri baserri joaten ziren txistulariekin. Horretarako, ordea, Santixabel egunean aureskua dantatu behar izaten zuten. Baserrietaraino festa usaina eraman eta trukean oilasko eta untxiak jasotzen zituzten. Ondoren bazkari eder bat egiten zuten bildutakoarekin. Baserriarrek ere gustora hartzen zuten herriko gazteen bixita, garai hartan ez baitzen hain erraza izaten baserrietaraino iristea. Hori bai, garai hartan gizonetakoak bakarrik ateratzen ziren oilasko biltzen. Ohitura hori zen eta emakumeei ez zitzaion burutik pasa ere egiten hori aldatzea.



Ezkonduen eguna ere egiten zen garai hartan. Haietako batean dibortzioa gaitzat hartuta hitzaldi bat egitea erabaki zuten. Hitzaldia eman behar zuena etorri ez, ordea, eta bere ordeztan herriko monagilo izandako Joxe Torregarai jarri zen. Halako batean esan omen zuten: *"Dibortzioaren alde dauden gizonak altxa dezatela besoa"*. Emakume asko beren gizonari esaten omen zien: *"zuk ez altxa e!"*. Ondoren Torregarai emakumei: *"dibortzioaren kontra dauden emakumeek altxa dezatela besoa"*. Emakumeek ondo ulertu ez eta inork ez omen zuten besoa altxa. *"Beno ba, dibortzioa onartzen da"* bukatu omen zuten Torregarai.





SANTIXABELAK

Komikia



PORTULARRUME


ITURGINDEGIA
BAINUKO ALTZARIAK



KALE NAGUSIA, 2-2-2D
Telf: Denda 943 36 46 37
Etxea 943 36 52 99

URDANTZI IGELTSERITZA

Ondo igaro festak!



Mugikorak: 649435475
649435476
Telf: 943 363370- 361439



Datorren urte arte... Plis-plas, txalo ta jolas

Errekamari Zubietako eskola txikian (2000-5-13)



Pantxikaren Atlasa Santueneako eskola txikian (2000-5-20)



Txan magoa kalezarren (2000-6-3)



Dretakar taldea Kalezarren (2000-6-17)





Sanjuan sua inoiz baino lehenago piztu den urtea izan da aurtengoa

Kalezarko jaiek egin dute berea. Bi asteburutan ederki gozatu dute kalezartarrek, eta baita ingurukoek ere. Dantzaldiak, mus txapelketa, Gorritiren showa, herriko dantzariak, aizkolariak... izan da festei nondik heldua. Hala ere, aurtengo Sanjuanak

luzaroan gogoratzekoak izango dira. Sanjuan sua gaueko 22.00etan piztu beharrean, 20.30etatik sutan egon baitzen Kalezarkoa. Sanjuan eskekoei aurreratu, eta norbaitek su eman omen zion. Gaurik motzenez eguna goizegi bukatuko zen beldur edo?



Lehen bai, orain ez?

Azken hilabeteotan, zehazki ETak tregua eten zuenetik, zenbait gora-behera ezagutu izan ditugu, besteak beste, euskal presoak Euskal Herriratzeko ahaleginaren inguruan egin diren ekimen eta mobilizazioetan.

Gabonen bueltan egin zirenetan iada somatu genuen nolabaiteko "epeltasuna" batez ere "Batera" osatzen genuen alderdi batzuegan. Gerora, urtarilean ere nahasmena eta bakoitzak bere aldetik jotzeko joerak nabarmendu ziren. Azken adibidea maiatzaren bukaeran antolatutako mobilizazio astean izan dugu.

Usurbilen Ezker Abertzaleko taldeak (HB, LAB, AAB, HAIKA, EKIN), Gure Artera Bilguneak eta guk geuk antolatu genituen aste horren barruan egin ziren deialdiak. "Batera" gisa herrian manifestazioa antolatzeko saiakera egin zen, baina ezinezkoa izan zen, gainontzeko taldeak ez baitziren bilerara azaldu.

Diskurtsotan euskal presoek eskubideen defentsak egoera politikoa araberako gora-beheretatik kanpo egon behar duen zerbaite dela esaten da etengabe, baina badi-rudi -irudipena baino begibistakoa da- gauzak ez direla horrela eta Frantziako eta Espainiako gobernuak egiten duten bezalaxe, zenbait eragi-

**MARTXA NAZIONALA
UZTAILAREN 5ean**

Usurbilgo ibilbidea

Hasiera: Kiroldegian (goizeko 10.00etan)

Olarriondo

Kale Zahar


Etxealdia

Zumartegi industrigunea

Kaxkoa

Atxega-alde

Bukaera: Kiroldegia (11.00ak inguruan)



le politikok ere beste exijentzietarako erabiltzen dituztela gure senitartekoak, kasu honetan ETak beste su-etena aldarrika dezan.

Guk garbi daukagu gure senitartekoak preso eta iheslari politikok direla. Horrelaxe ezaugarritu ditugu betidanik, egoera horretara arrazoi politikok direla medio iritsi baitira. Gainera, gobernuak beraiekiko daramaten jokaerak izaera hori birbaieztatu besterik ez du egiten. Baina hori bezain argi daukagu, egoera politikoa dena dela izanik ere, estatuek haien eskubideak errespetatu behar dituztela. Horrexegatik jarraitzen dugu eta jarraituko dugu mobilizatzen; herriko talde eta jendeari deialdiak egiten; alderdi bakoitza beren obligazioen aurrean ipintzen; presoek eskubideak errespe-

tatu behar direla uste duten herritarrei indarrak biltzeko aukerak eskaintzen. Eta hori, batera ala bakarrik.

Horrelakoxe aukera izango dugu, hain zuzen ere, datorren uztailaren 5ean. Presoen alde 100 metro egitea eskatzen dugu oraingoan, haiek bisitatzeko egin behar ditugun kilometroak sinbolizatu asmoz. Euskal Herri osoa zeharkatuko du Martxa honek eta Usurbilen 'Gure artera' Bilguneak eta 'Senideak'ek hartu dugu gure gain antolaketa. Dagoeneko herriko talde ugari beren sustengua eta partehartzea ziurtatu dizkigute. Zeurea ere espero dugu. Ehun metro euskal presoek eskubideen defentsan eta Euskal Herriko gehiengoaren borondatearen defentsan.

Usurbilgo "Senideak"

**LURDES
FRUTAK**

Festa zoriontsuak
opa dizkizuegu!

Bizkarre,3 Telf: 943 37 23 68



**URTINEA
LORATEGIA**

Lore eta lore landareak

Jai zoriontsuak
herritar guztioi!

San Esteban
Tlf. 36 22 55

**T R U K E
R U K E**

JANTZIAK

Santixelak
ondo pasa!
Festen ondoren beherapenak!

Erdiko kalea, 2
Tel:37 34 81

Azken bi urteetan Zumetak egin dituen lanak jasotzen dituen erakusketa

Joxe Luis Zumeta Bilbo aldera joan zaigu oraingoan. Bertako Uribitarteko biltegian neurri haundiko 50 koadroekin erakusketa jarri du abuztuaren 15a arte. Usurbildarrak azken bi urteetan egindako lanak ditu erakusgai, baita Eskozia aldean ikusgai egon den Gernika obra ere. Biltegitiko beheko solairuko hiru gune bete dituzte artistaren lan hauekin.

Ez da honelako erakusketa haundi bat egiten duen lehen aldia. Azkenengoa 1992an egin zuen, eta zortzi urteren ondoren beste bat egiteko garaia iritsi zela erabaki, eta Bilboko Uribitarteko biltegia behin behineko museoa bihurtu dute. "Erakusketan agertzen den lana 1998. urteko urrian hasi zen gutxi gorabehera -dio Joxe Luis Zumetak- Ikus daitezkeenak orain arte urte bitan egin ditudan ia lan guztiak dira, beraz. Sei edo zazpi urtean behin, ohikoak baino erakusketa haundiago bat antolatzea gustatu izan zait beti, eremu haundiagoetan".

Azkenengo erakusketatik orain jarri duenera bilakaera bat izan dela argi dauka usurbildarrak. "koadro bakoitzak toki desberdin batera narama, aurreko koadrotik zertxobait ezberdina den toki batera". Desberdintasun horiek eta bere bilakaera muga batzuen



barruan gertatzen direla onartzen du berak. "Nire hizkuntza egonkortuegi dago gehiegi aldatu ahal izateko. Azkenengo erakusketatik orain jarri dudanera bilakaera bat izan da, baina pinturak eman didan bilakaera, geldoa, berea. Nonbaitera narama. Betiko tokira eramango ez nauen bilakaera, toki ezberdin batera narama. Oraingo lanak zehatzagoak, naturalagoak dira".

Oraindik obretan dagoen eraikinean ditu lanak

Zumeta oso gustora dago erakusketarako aukeratu duen lekuarekin. "Tokia zoragarria da, antolatu dugun erakusketarako ezin hobea. Oso gustukoa dut. Gogoko ditut antzeko tokiak, ohiko zirkuitutik kanpo daudenak, eta morbo pixka bat dutenak". Horrez gain,

beste artista batzuentzat bide bat izan daitekeela gaineratu zuen: erabiltzen ez diren espazioak, baina erakusketa bat jartzeko erabilgarriak direnak aurkitzea.

Lan horien artean dago Gernika. Oartzunen hamabost egunez erakutsi zuten eta bigarrenez ikusi ahal izango da Euskal Herrian. Lan hau egi-terakoan aurrena marrazkiak kopiatzen hasi zela esan zuen herriko artistak. "Bere munduan sartzen saiatu nintzen bolada batean. Ez nintzen bere obran sartu, bere lana egiteko orduan erabili zituen zirriborroak izan ziren aztertu nituenak. Ondoren, zirriborrorik egin gabe zuzenean egin dut lan hori. Picassoren lana hartu eta gero nirea; eta haiek biak nola lotu izan da kontua. Maisuaren eta nire erdibidean gera dadin lotu nahi izan dut".


Osasunez urratu aurtengo santixabelak!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 I.C4
Tlf 37 08 78

20170
USURBIL

Iturgintza - Gasa - Berokuntza

J. Orbegozo



Bizkarra 1, 1.esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26

Herriko solidarioei 700.000 pezetako isuna

Oroitzen zara solidarioetaz? "Giraldilla" hitza entzungo zenuen ba? Iparraldeko "demoak" irakurri dituzu ezta? Usurbilgo aerolitoez zer-bait entzun al duzu? Ba guztiek helburu berdina dute: **euskal presoak Euskal Herrira ekartzea**. Ekintza guztiak era paketsuan egindakoak dira, baina legearen babeslek omen diren horiek zer-bait egin behar, eta, noski, giraldillei Sevillan egindako epaiketan espetxe zigorra


eta Usurbilgo aerolitoei 700.000 pezetako isuna jarri diete.

Legea betetzea era paketsuan eskatzen duenari "zapla", eta legeak dioena

bete dadin beraiek ezer egin ez.

Usurbildar guztiei esan euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko aldarrikatzen jarraitzeko, eta herriko aerolito zigortuei lagundu nahi badiezu Kutxan zabaldu den **21010069110123103376** kontuan diru pixka bat sartuaz edo egokiera ikusten duzunean lagundu dezakezula. Usurbilgo aerolito solidarioen izenean aldeztu aurretik esker mila, eta festak ondo igaro.

Aerolitoak!!



Zumarragako Santa Ixabel jaietako aurtengo programak usurbildar batek egindako azala izango du. Zumarragako udalak urtero antolatzen duen lehiaketara 20 lan aurkeztu ziren, eta horien artean **Zaloa Arnaiz Noaua!**ko kronistak egindakok azala aukeratu zuten epaimahaia osatzen zuten Victor Hernandez, Laura Zendoia eta Juanjo Ildiaketek. Lehiaketa hau irabazteagatik 50.000 pezetako saria jaso zuen usurbildar gazteak. Zorionak Zaloa!



Haimar Zubeldiak omenaldi "beroa" jaso zuen pasada den ekainaren 17an herriko udaletxe aurrean. "Haimar Zubeldia peñak" antolatuta ongi etorri xumea egin zitzaion Euskal Bizikleta irabazi eta Dauphine Liberen bigarren postua eskuratu zuen txirindulariari. Bestalde, Euskal Bizikletako antolatzaileek Usurbil datorren urteko edizioako etapa baten helmuga izateko proposamena egin diote udalari. Udalak oraingoz ez du erabakirik hartu honen inguruan.

Haur jantziak



Ondo igaro festak!

Pauma

Kale Nagusia, 2 Tel. 36 59 43



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

TXARO ARTZE ILEAPAINDEGIA

Buru-azalaren zainketa
Ile-apainketa

Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!

Etxebeste, 3 Tel. 37 16 85

Zuberoako "Mustraka" ikuskizunaz gozatzeko aukera uztailaren 8an

Zuberoa aldetik dator oraingoan notizia. **Gotaiñe eta Larraine** herriak utzi, eta gurean izango ditugu bertako gazteak datoren uztailaren 8an. Ez datoz gure herria bisitatzera bakarrik, Oiardo kiroldegian "Mustraka" ikuskizuna aurkeztuko baitute gaueko 22.30etatik aurrera. Zuberoako pastoralak da musika, kantua eta dantza tartekatzen dituzten lanaren ardatza.

Aste Santua pasa ondoren Xiru festibala antolatu ohi dute Zuberoako Gotaiñe- Irabarrenen. Bertan musika, kantua eta dantza uztartuz ikuskizun harrigarriak antolatu izan dituz-

te azken urteetan. Iaz artzantzarekin zerikusia zuen pastoral antzeko bat aurkeztu zuten, eta urtebeteko atzerapenarekin bada ere, uztailaren 8an Oiardo kiroldegian izango ditugu gaueko 22.30etatik aurrera.

Gotaiñe eta Larraineko gazteak

Zuberoako 15 kantari-dantzari beren ohitura, egunero bizi duten ohitura lantzeko biltzen dira. Zuberoako pastoralak arizaleak dira, pastoralak aktoreak alegia. 20 urtez azpikoak dira denak, Gotaiñekoak batzuk eta Larraine mendiko herrikoak besteak. Denak dira "Aintzindari", herri-

aren dantzari-ordezkaririk iha-uteriko maskaradetan. Tartean daude kantari eta xirulariak, baita Zuberoan dantza eta xirula irakasleak direnak ere. Ziru Festibalaren arduraduna eta ohiko dantza irakaslea den **Nicole Lougarot** da dantza sorkuntza zuzendaria, **Mixel Etxekopar** xirularia izanik musika eta kantu lanak egin dituena.

Ikuskizun honetan pastoreko mugimendu eta doinuetan murgilduko dira arizaleak: deklamazioa, ibiltzea, makilen erabiltzea, Satanen kargua, artzainen mundua... Gogoeta bizi batetik sortutako gauza berriak erakutsiko dituzte. Ez da pastoral baten emanaldia, baina bai "mustraka" bat, pastoralaren aurreko ensaiorekin izena alegia. Artzeko dioen bezala: "Iturri zaharretik edaten dut, ur berria edaten...".

Arratsaldean kalejiran ibiliko dira

Aitzaga elkarteak antolatu duen ikuskizuna, ordea, ez da gaueko ekitaldi horretara mugatuko. Arratsalde partean herriko kaleetan kalejiran ibiliko dira, hara eta hona, herriko txistularien gidaritzapean. Kalejiran, dantza, txistua... izango da zer ikusia eta zer entzuna Zuberoatik etorritako gazte koadrila honen eskutik.

Josu Aranberri



RAMON HARATEGIA

Ondo ibili

herriko festetan!

Bordaberri, 3
Usurbil

☎ 36 29 70

Kalkos kopisteria

- ☞ Fotokopiak
- ☞ Fotokopiak koloretan
- ☞ Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- ☞ Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- ☞ Planoen kopiak (AO arte)
- ☞ Ordenadoreko lanak
- ☞ Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburua)
- ☞ Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

ARGILAN

Etxetresna elektrikoak

Santixabel zoriontsuak opa dizkizuegu!

Kontzeju zaharra, 13
Usurbil

☎ 36 13 80



zerdi patsetan

Aston Pilla eta Olasagastik irabazi dute UGAko futbol areto txapelketa



Aston Pilla, 14 urtez gorakoetan txapeldun



Txurut taberna, 14 urtez gorakoetan txapeldunorde



Olasagasti haroztegia, 14 urtez beherakoetan txapeldun



Martin fruituak 14 urtez beherakoetan txapeldunorde

Eskubaloiko izarrak Oiardo kiroldegian



Herriko haur eta gazteek eskubaloian gorengo mailetan ari diren jokalariekin jokatzeko ohorea izan zuten pasa den ekainaren 12 eta 17an. Beren taldeak alde batera utzi, eta talde berezi baten partaide izan ziren Xabier Mikel Errekondo, Ibon Enbil, Iñigo

Moreno, Asier Zubiria, Gurutz Aginagalde, David Rodriguez eta gainerakoak. Beroketa ariketak egin, baloi jaurtiketak eginez besoak berotu eta... eskubaloi izarrekin partiduak jokatzerara. A zer paotxa eskubaloian hasi besterik ez diren egin herriko "eskubaloiari" gazteen-

LIZARDI

LIBURUDENDA

Eskolarako materiala
Maila guztietako
testu liburuak

Santixabel zoriontzuak!

K/ Etxebeste, 1 USURBIL
Tel.:943 36 11 15 (Gipuzkoa)

Santixabel onak pasa!



Zure kirol arropa eta material guztia!

Kale nagusia, 10

Tel.: 943 36 60 50

Zinkildetgia


Lentzeria,
gizonezkoentzat arropa
haurren jantziak,
erretako behar dituzunak

Aritzeta 1 behean
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87

Ziortzako kanpaldiaz pentsatzen

Gaur ekainaren 9a da, ostirala. Gelako leihoetik begira nago, euria goitik behera nola erortzen den begira. Atzo eguzkiak, goiz goizetik, herriko kale guztiak dizdizka jarri zituen eta gaur berriz... egun tristea gaurkoa. Horrelako eguraldia egiten duen bakoitzean kanpaldiaz gogoratzen naiz. 12 urte nituenetik, urtero Peñaloscintos auzoan, Ortigosa de Cameros herriko txoko zoragarri batean dagoen kanpaldira joaten bainaiz.

Nire adineko herriko jende asko topatzen dut bertan, eta elkarrekin jolasean ibiltzen gara. Batzuetan altxor bilaketa, besteetan olinpiadak, euskal jolasak... denetarik izaten dugu bertan. Aspertzeko betarik behintzat ez da izaten! Aurten bi txanda egingo dira; bat uztailaren 5etik 15era eta bestea 15etik 25era.



Iaz, herriko euskara ezagutu nahi zutenez, gurekin etorri ziren bi bizkaitar ezagutu genituen, baita ondarrutar bat ere. Gutun bidez edo telefonoz badugu harremana oraindik, emilioena ez baitugu kontrolatzen.

Gehien faltan botatzen dudana nautikoa da. Hango tranpolina, piraguak... eta rutetako janaria (amak etxean jartzen didana baino askoz hobea!). Bi, hiru edo lau egunetako ibilaldiak egiten ditugu eta hauei ruta deitzen diegu. Luzeena Soriako lurretan dagoen Laguna Negrara joatea izaten da.

Kanpaldi honetan gurasoek ere parte hartzen dute: kanpaldiko azpiegitura jartzeko ekainaren 24 eta 25ean, eta berriz jasotzeko uztailaren 25ean. Oso ongi pasatzen dute eta kanpaldia amaitzean monitore eta gurasoek bazkari bat egiten dute (a ze aurpegia e! gu etxean utzita...).

Aurten ere bi txanda izango dira: uztailaren 5etik 15era bat, eta uztailaren 15etik 25era bestea

Kanpaldiak lan ugari ematen du, eta monitoreez gain, sukaldari, pintxe, txofer eta mantenimendurako jendehan izaten da. Ez da profesionala izan behar, beraz, joan nahi baduzu Ziortzako norbaiti komentatu besterik ez duzu. Aii, ia ahaztu zitzaidan. Kanpaldi hau ziortza Gazte Elkarteak antolatzen du, baina zuetako askok ez dakizuen da aurtengoa 16. kanpaldia izango dela.

Beno, iaz egin nuen lagun baten argazkia bidaltzen dizuet, ze ongi pasatzen dugun ikus dezazuen.

Eta badakizue, egun zoragarri eta ahaztezinak pasa nahi badituzue, 12-16 urte bitartekoek edo 16 urtetik gorakoek aukera bikaina duzute. Kanpaldira arte!

Bartolo Potolo
(Ziortza Gazte Elkarteak)

Herriko kirolariak Euskal selekzioaren inguruko mahainguruan bildu ziren

Joxe Mari Arantzazistroke *Arrantzaleren* omenez antolatutako diren ekitaldien artean, pasa den ekainaren 13an Euskal Selektzioaren inguruko mahainguru bat izan zen Udarregi Zaharrean. Bertan bildu ziren herriko kirolari famatuak: Xabier Mikel Errekondo, Martin Alustiza, Haimar Zubeldia, David Asensio eta Aiora Arrospide. Euskal selekzioaren alde diharduen *Esait* taldeko Martxel Toledo ere bertan izan zen.

Esait taldeak duela 6 bat urte hasi zuen Euskal selekzioaren aldeko bere borroka, gizarteak ere halako zerbaite eskatzen baitzuen. Bi helburu nagusirekin sortu zen: batetik Euskal selekzio ofizialak txapelketa ofizialetan parte hartu ahal izatea eta bestetik, eta horren aurretik egin beharrekoa zena, gure gizartearen Euskal selekzioaren kontzientzia sortzea.

Tamalez, eta ezaguna den modura, bere lehenengo helburua ez da bete oraindik. Bigarren helburua, aldiz, neurri handi batean lortu dutela uste du Martxel Toledok. Gaur egun Euskal selekzioaren aldeko kontzientzia egon badagodelako. Horren adibide gisa, duela sei bat hilabete Eusko Jaurlaritzak *Esait*-ek eskatuta eginiko inkesta bat aipatu zuen. Inkesta hori oraindik kallean ez dago, baina argi adierazten du Euskal Herriaren gure selekzioaren aldeko kontzientzia izugarria dagoela eta gizarteak Euskal selekzioa ofiziala izatea eskatzen duela.

*Esait*eko partaidea, duela bi urte Gasteizko Legebiltzarrean onartu zen Euskadiko kirol legearen inguruan luze aritu zen: "Lege honek *ilusioa* eta *itxaropena* ekarri zuen arren, lege hori ez da behar bezala garatu eta legearen aurreko egoera berdintsuan aurkitzen



gara oraindik ere". Izan ere, lege horretan zehazturiko artikulua asko ez dira betetzen, adibidez, euskal lizentzien ingurukoa. Artikulu honen arabera, euskal lizentzia ofiziala da eta, beraz, baliogarria edozein tokitan. Aldiz, oraindik kirolariek espainiar eta frantziar lizentziekin jokatu behar izaten dute arazorik ez izateko.

Ezeta ematearen ondorio latzak

Gure kirolari famatuak ere izan zuten zer esanik gai honen inguruan. Xabier Mikelek esan zuenez, maila profesionalean diharduten kirolari guztiak egoera berdintsuan daude. Espainiako selekzioak deitzen baditu, ezetza eman dezakete, baina badakite horrek ekar ditzakeen ondorioak ez direla batere onak. Bi urterako lizentzia ken diezaiekete eta bi urtetan, bere ogibidea denetik bazterturik egongo lirakeke.

Gainerantzean, euskal selekzioaren aldeko kontzientzia egon badago, baina urtean gutxitan euskal selekzioak jokatzen dituen partidu horiek folklore hutsa direla uste du eskubalo jokalari famatuak.

Haimarren ustez, Euskal selekzioaren aldeko borroka ezin du kirolariak bakarrik

aurrera eramán, kirolaria beti galtzaile izango baita.

Pelotari profesionalen egoera, berriz, oso bestelakoa da Alustizaren ustez: "Euskal pelotak Espainiako federazioaren presiorik gabe funtziona dezake eta hala funtzionatzen du".


David Asensioaren ustez, futbolariaren egoera ez da batere erraza gai honen inguruan. Espainiako selekzioak deitzen bazaitu, joan beharra daukazu isunik jaso nahi ez baduzu, behintzat. Askok kostatzen da hor gora iristea eta behin iritsita, zaila da hori kolokan jar dezakeen ezer egitea.

Aiora Arrospidek *Samboko* Euskal selekzioarekin izandako esperientzia kontatu zuen. Egun *Sambon* eta *Surfean* bakarrik da ofiziala Euskal selekzioa. Hala ere, ofiziala izateak ez du beti dena konpontzen. *Samboko* Euskal selekzioak, adibidez, ezin izan zuen mundial batean parte hartu Espainiako federazioaren aginduz.

Euskal selekzioaren arazoa hor dago. Espainiako edo Frantziako kamiseta kirolariak jantzi behar izaten du, baina kirolariei edo politikariei dagoie hori konpontzea?



Idoia Zabala



- Kontserbatorioko ikaslea
- 22 urte
- Biolineko irakaslea

MUSIKA IRAKASKUNTZAREN ETORKIZUNA KOLOKAN

Ikasleok egunero hainbat arazo eta oztopo izaten ditugu gure ikasketak behar den bezala egiteko. Betiko gaia eta erronka, gure etorkizuna bermatzea da.

Goi Mailako Irakaskuntzan zentratuz, LOGSE lege berria musika hezkuntzan aplikatu zenetik arazoak biderkatu egin zaizkigu. Izan ere, 2001-2002 ikasturtean Goi Mailako Ikasketak egiten hasteko ez baitugu horretara egokitutako kontserbatoriorik. Lege berri honek kontserbatorio berri bat egitera behartzen du, hau da, egungo kontserbatorioek ez baitituzte prestakuntza eta baliabide tekniko nahikorik Goi Mailako Ikasketak egin ahal izateko. Honen aurrean, arrazoi ekonomikoak zirela medio, Eusko Jaurlaritzak ez zen prest agertu eraikin berria egiteko.

Hau dela eta, ikasleok milaka mobilizazio egitera behartuta ikusi gara. Izan ere, kontserbatorio berria ez irekitzeak EAetik kanpora joan gabe ikasketak horiek jarraitzeko aukerarik ez baikenuke izango. Honek euskaraz ikasteko dugun eskubidea zokoratzea suposatuko luke. Honekin batera, euskal instrumentu musikalen inguruko ziurtagiri ofiziala izateko aukerarik ez genuke izango. Izan ere, Murtzian txistuaren ikasketak (adibide bat jartzearen)

eskaintzarik ez baitago. Honen aurrean, euskal folkloreaken transmisioa galtzeko arriskua egongo litzateke. Euskal folklorea irakasteko irakasle tituludunik ez litzateke sortuko.

Ikasleok aurreikusten ditugun eragin eta ondorio latzgarri hauen aurrean, lotsagarria iruditzen zaigu Eusko Jaurlaritzak hasieratik mantendu duen jarrera. Teknologia berrien irakaskuntzan sekulako inbertsioak egiten ari diren bitartean, guri egoera tamalgarri honetan uzten gaituzte.

Egun egoera honetan aurkitzen gara: ikasleok Hezkuntza Saileko arduradunarekin, Inaxio Oliverirekin, bilera bat izan ondoren hitzezko konpromezu politikoa hartu du. Nahiz eta, oraindik idatzizko eta sinatupeko konpromezurik ez dagoen. Horregaitik, ikusi ditugunak ikusi eta gero, hasierako jarrera aldatuko duela sinistea zaila egiten zaigu.

Azkenik, gure iritziz, ezinbestekoa da, kultur koherentzia eta hezkuntza-premia kontutan hartuta, Goi Mailako kontserbatorio hau Euskal Herrian 2001-2002 ikasturterako ezartzea. Uste dugu hori beharrezko berme guztiekin egin daitekeela. Hezkuntza Sailak lehenbailehen hartu behar du erabaki hau, edozein atzerapenek kalte larriak ekarriko baituzkie ordurako erdiko maila amaituta izango duten ikasleei.

Goi Mailako kontserbatorioa Euskal Herrian egiten ez bada, erdiko maila amaituko duten ikasleek EAetik kanpora joan beharko dute ikasketak amaitzera

Bertsoak

Xabier Aranburu "Xomorrok", Santixabelak direla eta bertso batzuk bidali dizkigu Herrera de la Manchako espetxetik


Gudari orok merezi du omenaldiaren babesia Euskal Herria askatutzea berebiziko ametsa nahiz eta zuek utzi lekua betetzen ez da erraza borrokan tinko segituko dugu hori da gure promesa!

Dispertsioa izanik gaztigua urrundarik familia da sofritzen duna hain urrun egonik hemen ezto gauza onik bihotzez diotsuet gaur nik: "Euskal presoak Euskal Herrira aldari gaurdanik"!

Santixabelgo iturritik edan zazute gogotik euskara mintzaz une orotan barru ta kanpotik trikitixaren hotsetik panderuaren kolpetik dantzari ederrik izango data Usurbil aldetik!

Euskal Presoak Euskal Herrira!
Gora Euskal Herria askatuta!
Gora hildako gudariak!

Lehiaketa



Nola du izena argazkian ageri den baserri horrek?

Asmatzaileen artean Bordatxo jate-txean bi pertsonentzako afaria zozketatuko dugu.

Bai galdera erraza jarri genuela aurreko alean. Txokoaldera bueltatxo bat ematera joatea nahikoa da 92.alean galdetu genuena erantzuteko. **Portu** zen baserri hura, eta asmatu dutenen artean **Urko Zabalak** izango du beste lagun batekin Tragoxkan afaltzeko aukera.




Giltzak kopiazen ditugu!

ALDAMU

Zapatak, Kanpinak, Kremailerak (poltsak, zamarrak, galtzak...)

Kale Nagusia, 2 Tel: 943 37 27 95



BEREZITASUNAK Txerrikumea, Txuleta eta Arraia

Aginaga 36 27 73

SEKAÑA



SOLARIUM DEPILAZIOA

ILEAPAINDEGIA

Etorri aurretik eska ezazu ordua!

Jai zoriontsuak opa dizkizueg

Kale Nagusia, 2- Telf: 943 37 28 4

EKAINAK 29 osteguna

- 9:30etan **KULKI**, Iparraldeko jokoak. Egun guztian **gatzeluak eta zezen mekanikoa**. Eguerdī aldean **tonbola eta hamaiketakoa**. 13:00etan **buruhaundi eta erraldoiak** txistulariekin. 17:00etan **Goloka** antzerki taldea eta ondoren txokolatada. 19:00etan **buruhaundi eta erraldoiak** txistulariekin. 19:00etan **Txoznen irekiera**, JAIK BAI, BORROKA ERE BAI! etxeferoak, trikiti jaialdia eta poteoa. Ondoren **herri afaria** txoznetan eta afalostean bertolari gazteak. 23:00tan **Amaia eta Kristina** pilotalekuan.

EKAINAK 30 ostirala

- 06:00tan txokolatada eta **oilasko biltzaileen irteera**. 12:30ak aldera **oilasko biltzaileen itzulera**. 14:00tan **oilasko biltzaileen bazkaria**. 16:00tan **futbito txapelketa** txoznetan. 16:30tan **Santixabel X. Igel** jokoa Gure Pakea zahar egoitzan. 19:00tan **buruhaundiak eta erraldoiak** trikitalariekin. 20:00tan **ortilla txapelketa** txoznetan. 23:00tan Rock kontzertua: **Esaiak, Ekon eta Floxbin**.

UZTAILAK 1 larunbata

- Egun guztian zehar **dultzainero eta trikifilariak**. 11:00etan **toka txapelketa** dema plazan. 12:00etan "Preso eta iheslari politikoak Santixabeletan!" martxa. 14:00tan **zikiro jana**. 17:00etan **herri kirolak: Igeldo eta Aginaga** auzoak aurrez aurre.

18:00etan **haurren danborrada**, TIRRI TARRA fanfarrearekin.
19:00etan **buruhaundi eta erraldoiak** dultzaineroekin
19:30etan **preso eta errefuxiatuei omenaldia**
22:00etan bertolariak herriko pelotalekuan:
Jexux Irazu, Jokin Sorozabal, Xabier Sukia, Ibai Esocain eta Xebastian Lizaso.
Gai jarzailea: **Joxe Mari Izeta**.
Ondoren: **XXIV. Santixabel Bertso-paper Lehiaketako** sariak banatuko dira.
24:00etan **ikurrinaren igoera** alka-tearen agurrekin eta ondoren **helduen danborrada TIRRI TARRA** fanfarrearekin.
Jarraian **Izotz** taldearekin gaupasa.

UZTAILAK 2 igandea

- 9.00etan **esnadeia** txistulariekin. Egun guztian zehar **dultzaineroak**. 11:00etan Meza Nagusia 12:00etan **salda eta lore banaketa**. 16:30tan **IV. mus txapelketa** txoznetan.
17:00tan **pelota partidua**:
Oiaga eta Iriarte
aurka
Mikelperezina eta Zilbeti
Kaxstellanos eta Elola
aurka
Huizi eta Albizuri
Ondoren **piper banaketa**.
19:00etan idi dema **Aiako Txintxua eta Santueneako** idi parez aurrez aurre.

20:00tan **buruhaundi eta erraldoiak** dultzaineroekin.
20:00tan kantaldia txoznetan: **Aitzol Lasa**.
23:00etan **Etzakit**.

UZTAILAK 3 astelehena

- 07:00tan **txokolatada**.
8:00tan **Sokamuturra** Kale Nagusian.

10:00etan **esnadeia** txistulariekin. Egun osoan **dultzaineroak**.
12:00etan **Krono** jaitsiera Arratzaindik.
12:00etan **Meza Nagusia**
12:45tan **Herriko dantzarien emaldia** pelotalekuan.
14:00tan **jubilatuaren bazkaria** Saizarren.
14:30tan **gazte bazkaria** txoznetan.
16:00tan **Harane** futbol zelaian **Gazteen futbol txapelketa**.
17:00tan **Kuadrilla** olinpiadak txoznetan.
18:00tan **harrijasotzaileak eta aizkolariak: Peñagarikano eta Olasagasti**.
20:00tan **buruharundi eta erraldoiak** dultzaineroekin.
23:00tan **Laiotz**
24:00tan **maskotaren erreket**

UZTAILAK 8 larunbata

- Aitzaga elkarteak antolatuta "**Mustraka**" **ikuskitzuna** Oiardo kiroldegian gaueko 22.30etan hasita. Arratsaldean kalejira egingo dute.

OHARRAK

- ✍ **Galtzaragainan dagoen taberna saldu nahi nuke**. Interesatuok deitu 943 36 45 98 telefonora (gauean deitu mesedez).
- ✍ **Udarregi ikastola aldean norbaitek giltza batzuk aurkitu baldin baditu** deitu telefono honetara mesedez: 649 322873
- ✍ **Bigarren eskuko irratikasetak, telebistak... behar dira**, ahal izanez gero modu onean. Telf. 943 37 18 80 (Ander)
- ✍ **Emakume bat behar dugu** neska-txa bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Telf. 943 37 02 89
- ✍ **Giltza batzuk galdu dira** Agerialdeko errotonda inguruan. Aurkitu dituenak dei dezala 943 37 06 67ra.

Pinturas
lon

LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
Mobila: 609 888021

943 83 09 37 ☎ 670 397504



ATXEGA hotela,
jaketxea eta kafetegia



**Santixabel zoriontsuak
igaro ditzazuela
opa dizuegu!**

Tlf. 943 37 11 50

USURBILGO TABERNARIEN ELKARTEA



- 1 Gorriti. 943 36 27 70
- 2 Txurrit. 943 36 00 80
- 3 Patri. 943 36 27 25
- 4 Zendoia-enea. 943 36 25 60
- 5 Sagasti. 943 36 60 03
- 6 Usurbil. 943 37 03 44
- 7 Antxeta. 943 36 43 58
- 8 Txapeldun. 943 37 04 57
- 9 Oiardo. 943 37 24 98
- 10 Karobi. 943 36 27 43
- 11 Gure Pakea. 943 37 32 28
- 12 Benta. 943 36 61 21
- 13 Bordatxo. 943 37 10 42
- 14 Xabier. 943 36 19 78
- 15 Irrati. 943 36 06 16
- 16 Aitzaga. 943 36 02 17
- 17 Txiriboga. 943 37 00 13

Ondo pasa Santixabeletan!